

Kriminologia Gradua  
Gradu amaierako lana

---

***KARTZELAKO BIZIKIDETZA  
BIRGIZARTERATZEKO BALIABIDE BEZALA***

---

Naia Lazaga Melado  
Tutorea: Omar Garcia Zabaleta  
Donostia, 2021

## LABURPENA

Espetxe-instituzioen helburu nagusia delitugilea birgizarteratzea da. Azken urteetan saiakera anitz egin dira presondegietako egoerak hobetu nahian, baina maiz, baliabideen urritasunak, delitugilearen beharretara egokitzen den birgizarteratze prozesu egoki bat aplikatzea oztopatzen du praktikan.

Espetxeetan ematen den bizikidetza, baketsua eta antolatua izatea beharrezkoa izango da, preso dauden eta askatasunean bizitzeko aukera, baliabide edo gaitasunik izan ez duten horiek, berrezteko. Eskubide-mugatuak dauden ingurune horretan, bizikidetza egoki bat lortzea ez da lan erraza, eta horretan dihardute espetxe-instituzioetako eragile ezberdinak.

Lan honen bitartez, kartzela-eragile eta espetxeratuak izan diren pertsona ezberdinen testigantzak jaso dira, espetxearen eraldaketarako ideia berritzaileak garatu nahian, eta instituzio honetan kriminologoak zeresanik baduela demostratzeko. Espetxeetako bizikidetza aztertu da momentu oro, birgizarteratzeko prozesurako behar-beharrezkoa delako, presoak gatazka gabeko ingurugiro batean egotea.

**Hitz gakoak:** Birgizarteratzea, berreziketa, delitugilea, espetxe-zigorra, espetxea, espetxeratua, bizikidetza.

## RESUMEN

Las instituciones penitenciarias tienen como objetivo la reinserción del delincuente. Durante los últimos años, se han hecho repetidos intentos de mejorar la situación carcelaria, pero la falta de recursos materiales, han obstaculizado que el proceso de resocialización haya sido totalmente efectiva.

La convivencia que se da en las cárceles debería ser pacífica y ordenada para reeducar a los presos que no han sabido vivir en libertad. En un entorno donde los derechos de las personas están limitadas, los diferentes agentes de las instituciones penitenciarias trabajan para conseguir una buena convivencia carcelaria.

Mediante el trabajo presente, se han recogido distintos testimonios de agentes de las instituciones penitenciarias, y de ex-presidarios. Se ha analizado constantemente la convivencia que se da dentro de las cárceles con el fin de demostrar que es necesario en el proceso de reinserción de los presos. A continuación se han presentado nuevas ideas, con el objetivo de demostrar lo valioso que puede ser la figura de un criminólogo dentro de las instituciones penitenciarias.

**Palabras clave:** Reinserción, reeducación, delincuente, pena de cárcel, cárcel, preso, convivencia.

## ABSTRACT

The primary purpose of prison institutions is to reintegrate the criminal. In recent years, many attempts have been made to improve the conditions of prisons, but the scarcity of resources in practice hinders the application of a proper relocation process that conforms to the needs of the delinquent.

The life in prisons should be peaceful and organized in order to reintegrate those who are imprisoned and have not had the means or capacity to live in freedom. In an environment where rights are limited, the acquisition of a suitable life is not an easy task, and the different agents of the prison institutions are working on it.

Through this work, testimonies have been received from different people who have been in jail and prognosticators, seeking to develop innovative ideas for the prison 's transformation and to demonstrate that criminologist has something to say in this institution.

**Key words:** Prison, to reintegrate, delinquent, coexistence, criminologist.



3.3 Lagina.....	62
3.4 Metodologia.....	62
3.4.1 Espetxe-zigorra jasan dutenei galdetegiak.....	62
3.4.2 Espetxeetako psikologoari galdetegia.....	63
3.4.3 Espetxean erizaintza praktikak egin dituenari galdetegia.....	64
3.4.4 Espetxeetako jurista teknikari gorenari galdetegia.....	65
3.4.5 Espetxeetako hezitzaileari galdetegia.....	65
3.5. Emaitzak.....	66
3.6. Ikerketa kriminologikoaren ondorioak.....	74

#### 4. BIBLIOGRAFIA

## SARRERA

Kriminologia zientzia interdisziplinari bat da. Ikerketa objektu gisa, zigorra, delitugilea, biktima, kriminalitatea, instituzioen erreakzio sozial, kultural eta ekonomikoa ditu, azalpen, jarraipen eta aurrezaintza praktika egokiak lantzeko gizarteko gatazka ezberdinen aurrean. Lehenengo ikerketa kriminologikoak Pablo Toppinard antropologoaren eskutik garatuak zirela esaten da eta lehenengo liburuan César Lombrosok kriminologiari buruzko lehen liburua idatzi zuen 1885. urtean, Rafael Garófaloaren ideiak aintzat hartuta.

Esan dugun bezala kriminologiak bere ikergaien artean zigorraren ikerketa du helburuetako bat, eta hori izango da lan guztian zehar garatuko den ideia. Kriminologiak delitugileentzako zigorrik baliogarriena lortu nahi izan du beti, birgizarteratzea posible denaren ideia izanik oinarrian.

Birgizarteratzea egokia izan dadin, beharrezkoa izango da espetxeetan gatazka gabeko edo gatazka gutxiko bizikidetzak baketsu eta antolatu bat egotea. Bizikidetzak eragin handia duelako pertsonengan eta presoan kasuan berdina gertatzen da.

Delitugilea, ikuspegi soziologiko batetik, gizartean integratu ez den agente bat da, zeinak gizarteak berak inposatzen dituen neurriak betetzeko zailtasunak izan dituen. Desbideratzearen soziologiak dio, gizartean normaltasunetik at dagoen jarrera edo jokaera bat desbideratutzat hartuko dela. Ideia hau, muturrera eramanda, delitugileak, gizarteko lege idatzien urrapen bat burutu du. Ondorioz, gizarteak interpretatzen du, pertsona hori zigortu behar dela, legeen errespetuan bizitzen ikasteko.

Mendeetan zehar, zigorraren aplikazioa heriotza izan zen. Ez zen delituaren araberako zigor bat aplikatzen eta gizartean beste batzuen edo gizartea beraren odasunak urratzen zituenari, heriotza zigorra aplikatzen zitzaion, ezberdintasunak kontuan hartu gabe.

Urteek aurrera egin ahala zigorrak delituarekin proportzionalagoak izaten hasi ziren eta juridikoki eskubideen errespetua aplikatzen hasi zen gutxinaka. Lan honetan, kartzela zigorra baliogarri den edo ez aztertu nahi izan da ikuspuntu kriminologiko batetik. Kartzelaratzen den pertsonarengan nolako eragina duen,

baliogarri izan den birgizarteratze prozesurako, eta espetxealdia zein baldintzatan pasatu duten delitugileek.

Zigorrak mendekotasunezko izaera izan du urte askotan, eta zigortuek sortutako kaltea beren eskubideen urraketaren truk ordaintzen zituzten sortutako kalteak. Hau, gizarteetan bizikidetza egoki bat lortzeko asmoz aplikatzen zen. Kalteak sortzen zituena gizartetik kanporatu beharra zegoelako.

Espetxe-zigorren helburu nagusia egun, kartzelan sartu den pertsona birgizarteratzea da teorian. Presoa, kartzelan egon ostean beraz, askatasunean legea errespetatuz bizitzen ikastera prestatuko da.

Egun, gizarteetan neurri sozialez gain, badira idatzitako eta guztiz zehaztuta dauden legeak. Lege hauek, gizarteko ondasunak babesteko helburuarekin idatzi dira. Ondasun horien babesa oso garrantzitsua izango da pertsonen arteko harremanak baketsuak izateko. Baina, ez da batere erraza pertsona guztiak lege horien errespetuan bizitzera hezteko, dauden ezberdintasun sozial, politiko, ekonomiko eta psikologikoen ondorioz.

Gizarte guztietan, beti izan dira gatazkak pertsonen artean. Komunitate guztiek beti egin izan dituzte bizikidetza egoki bat izateko ahaleginak. Horretarako mendeetan zehar aldaketa handiak eman dira gizarteentzako entolamenduetan. Ideia honetatik esan genezake sortu zirela eskubideak babesten zituzten legeak.

Arazo sozialak, gizartearen helburu komunak lortzeko oztopo bat izan daiteke, batzuetan gutxi batzuei eragingo die eta beste batzuetan gizartea bere osotasunean kaltetuko dute. Eremu sozialetan egon daitezkeen gabeziek, gatazkak sortzeko aukerak areagotzen ditu. Gatazka hauen ondorioz, ondasun ezberdinen urraketa ekarri dezakete.

Pertsona ezberdinek dituzten gabeziek, garapen pertsonalerako eta helburu pertsonalak lortzeko arazoak sortu ditzakete. Ondorioetako bat, helburuak lortzeko legezkontrako bideak erabiltzea izan daiteke. Bide horiek, legezkontrakoak izan daitezke. Legearen urraperen horrek, gizarteko instituzio ezberdinek neurri ezberdinak hartzearen arrazoia izan daiteke, kartzela-zigorra aplikatzea besteak beste.

Bizikidetza egoki bat, gatazka gabeko bizitza bat dela esan genezake. Legearekin errespetuan bizitzeak, ondasun ezberdinak errespetatzea barnebiltzen



du. Kartzelaren beste helburuetako bat, gizartea delitugileetatik babestea da, hiritarrei babesa emateko.

Lanaren muinean dago, kartzelak bere birgizarteratzeko helburua lortzen duen edo ez ikertzea. Kasu honetan, espetxe instituzioaren indguruan hainbat eragile daude, eta garrantzitsua izango da eragile horiek elkarrekin kooperatzea eta elkarlanean aritzea. Ezinbestekoa izango da hortaz, profesional ezberdinen parte hartzea eta azken hauek, espetxeratuaren ongizaterako ideia berritzaileak sortzea, gziartera modu egoki eta eraginkor batean integratzea.

Espetxeak, instituzio bezala, presoek eskubideak asko mugatzen ditu eta maiz, honek espetxeratuengan eragin negatibo bat ekarri dezake. Oztopo horien gainetik, birgizarteratzeko praktika ezberdinak aplikatuko dira. Programa eta ekintza ezberdinak, hezkuntzarekin, ikastaroekin eta lan-arloarekin izango dute harremana. Beraz, espetxeak prestatuak egon beharko dira arkitektonikoki eta ekintza ezberdinen jardueretarako garatzeko.

Presondegiek hainbat baliabide izan behar dituzte eta herrialde ezberdinetan baliabideak ez dira neurri berdinean instituzioetan inbertitzen. Gainera, herrialdealdearen egoera ekonomiko, politiko eta sozialak zerikusi handia izango du beren instituzio penalen kalitatean.

Birgizarteratzea posible dela pentsatzen duten herrialdeetan, espetxeen egitura eta programa ezberdinen garapena modu batekoa edo beste batekoa izango da. Lan honetan zehar, gure inguru hurbileneko espetxeetan dauden baldintzak aztertuko dira. Lehenengo teoriaren bitartez gaia sakondu eta ondoren ikerketa kriminologiko baten bidez, azterketa bat egin.

Espetxe-instituzioak bere legedi espezifikoak du, birgizarteratzeko helburuak lortzeko, eta baita, presondegietan bizikidetzatza ordenatu eta baketsu bat izateko. Horretarako presoek eskubide eta betebeharrak ezberdinak atxikitzen zaizkie, askatasunezko gizarteetan bezala.

Espetxe-langileek ere, beren eskubide eta betebeharrak izango dituzte kasuan kasu, eta rol ezberdinak izango dituzte. Espetxe-langileek presoengan eragin handia dute, zuzeneko elkarbizitza bat dutelako.

Aurretik azaldu bezala, kartzelaratzen diren pertsonak, askatasunean legearen errespetuan bizitzeko aukera, baliabide edo gaitasunik izan ez duten

pertsonak dira. Guzti hauek muga geografiko eta eskubide-mugak finkatzen dituen instituzio batean barneratzen dira eta ez da lan erraza izango bertan bizikidetzazuzen eta baketsu bat garatzea.

Aztertu behar da beraz, presondegiatan zeintzuk diren gatazkak sortarazten dituzten elementu gakoak eta zeintzuk dira kartzeletan dauden toki gatazkatsuenak. Interesgarria izango da ingurumeneko kriminologiaren eskutik dagoen hot-spots mapa ezbedinen aplikazioa arlo honetan. Mapa hauek, hirietan delitugintza gehien ematen diren tokiak azpimarratzen ditu, aurrezaintza lanak errazteko asmos. Espetxeetan, oso baliogarria izan daiteke, gatazkak ekiditeko baita.

Espetxeetan bizikidetzaz egoki baterako hainbat aspektu hartu behar dira kontuan. Kartzelarazten den pertsonak zer delitu mota egin duen, dituen arrisku eta babes faktoreak k-pontuan hartu beharko dira, kartzela aldia luzarorako izango den edo ez, eta abar luze bat.

Aurretik azaldutako aspektu horiek kontuan izanik, prograka eta ekintza ezberdinen aplikazio indibidualizatu bat proposatzen da. Kontuan hartu beharreko gako garrantzitsu bat da kartzelaratuak ez duela bigizarteratze programetan parte-hartzeko obligazioa, baina bere kondenaren eraldaketa posibleetan eragina izango du.

Espetxe instituzioek, gizarteetan berrerorketa murriztu nahi dute, hau da, zigor penal bat jasan duen pertsona horrek, askatasunean legeen errespetuan bizitzera irakatsi behar du. Horretarako, birgizarteratze eta berrezte prozesuetarako erabiltzen diren baliabide ezberdinak eraginkorrak izan behar dira.

Kontuan hartu behar da, egun, presoarentzako kartzelaratze prozesuak duen inpaktu sozial eta pertsonala. Gizartetik ateratzen diren delitugileek, normalean estigmatizazio handia jasaten dute beren inguru hurbiletik. Beste batzuetan ordea, ingurugiroa egoera hauetara ohituta dago eta ez dio kalte sozial handirik eragingo presoari kartzelaratze prozesuak.

Aurretik azaldutakoaren inguruan egingo den ikerketa kriminologikoa galdetegien bitartez egingo da. Galdetegi hauek, espetxe-eragile ezberdinei egingo zaizkie, hala nola, espetxe arloarekin harremana izan dezaketen pertsonak hartuko dira kontuan. Baina batez ere, espetxeratuen esperientzia aztertzea berebizikoa izango da, ondorio errealak ateratzeko.

Espetxe instituzioetatik informazioa ateratzea lan zaila bada ere, Gradu Amaierako Lan honetan, esperientzia pertsonal ezberdinak jaso dira, espetxe-sistemarekin harremana izan duten indibiduo ezberdinena.

Espetxeratuen lekukotza izango da lanean garrantzi gehien izango duen atal praktikoko zatia. Hain zuzen ere, beraiek direlako espetxe-zigorra jasan dutenak eta birgizarteratze programak oso hurbiletik ezagutzen dituztenak.

GRAL honek duen hipotesi nagusia, espetxe-sistemaren egitura eta antolamenduak gaur egun gabezi handiak dituela da. Honek espetxeratuen birgizarteratze prozesua oztopatzen duela esan daiteke eta beharrezkoa dela baliabide gehiago erabiltzea.

Lanaren egiturari dagokionez, lehenengo ikuspuntu teoriko batetik, kontuan hartuko dira ikuspegi, soziologiko eta kriminologikoak. Garrantzi handiena duten legeak aztertuko dira alor honetan, ondoren legean oinarriturik dauden praktika errealak ematen diren edo ez ikusteko.

Lanaren azken helburua, ondorio eta kritikak egitea izango da, espetxe-sistemak dituen gabeziei buruz, baita delitugileengan sortzen dizkion eragin negatiboak buruz. Ondorio positiboak ere aztertuko dira, mendeetan zehar espetxeek izan duten eraldaketa eraginkorra izan delako hein handi batean.

Ikuspegi kriminologiko batetik, beharrezkoa izango da aztertutakoaren harira proposamen berriak integratzea espetxe-sistemaren inguruan. Ikuspegi honetatik, eragile ezberdinen eraginak eta gabeziak aztertuko dira, espex-langileen jarrera eta jokaera ezberdinak kontuan hartuz. Lanaren oinarrian egongo da horretarako espetxean esperientzia pertsonalak izan dituzten pertsonak aztertzea.

## 1.MARKO TEORIKOA

### 1.1 BIZIKIDETZA

Gizakiak izaki sozialak gara, gure eguneroko izateak beste batzuen izatearekin etengabeko harremanean bizi gara. Aldi berean, izakiok, izaera soziala dugun arren, gure izate indibidualak ere bere baitan hainbat esperientzia bizi ditu. Batzuen hitzetan, pertsonak badu beraz, atal sozial bat eta beste bat oso pertsonala dena. Beraz, gizakiak, izaki dualak garela esan daiteke.

Aurretik aipatutako gizakiaren bi atal horiek, gatazkatsuak izan daitezkeen arren, hurrengo orrialdeetan, gizakiaren atal sozialak zer noalko gatazkak bideratu ditzazkeen aztertuko da.

Arau komun batzuekin antolatutako pertsona multzoa da gizartea. Arau horien helburua normalean, lorpen batzuk lortzea izan ohi da, hala nola, bizikidetzaren eta biziraupena posible izatea. Antolakuntza posible egiten duten ildo horiek, soziologiaren ikuspuntutik arau sozialak dira.

Soziologiaren, filosofiaren eta zientzia sozialen oinarrian aurkitzen da arau soziala kontzeptu gisa. Zientzia sozial bat da ere, kriminologia hain zuzen ere. Zaila bada ere, arau sozialaren definizio bat beharrezkoa da, burubide ezberdinek duten motibazioa ulertzeko. Gainera azken hau ulertuz gero, posible izan daitekeelako jokabide horiengan eragina izatea, hezkuntza diseinu, diseinu instituzional edo beste zenbat medioren bitartez.

Zientzia sozialekin bat datorren definizio bat aurkitu nahian, J. Coleman (1991) eta E. Ullman-Margalit (1977) izan dira batzuk, aukeraketa arrazionalaren teoriarik oinarriturik. Hain zuzen ere, esan daiteke, izakiok, arauak oinarrian dituen gizarteetan bizi gara. Modu batera edo bestera, azken horiek gure jarrera baldintzatzen dute edo gure pausu bakoitzean behintzat eragin bat sortzen dute.

Aurrekoa kontuan izanik, jakin genezake, arau sozialen inguruan bizi diren pertsonen artean bizikidetzaren bat sortzen dela.

Gizakiak, izaki sozialak garen heinean, konplexutasun handiko elkarrekintzak mantentzen ditugu. Azken hauek, beste pertsona batzuekin elkarreraginean aritzea ahalbidetzen digu. Izaki taldekoiak gara gure egoera naturalagatik eta espezie motaren ondorioz. Esan genezake gure biziraupenak

ezaugarri horri esker garatu dela. Beraz, bizikidetzaren terminoa zehazki, pertsonen arteko elkarreragin eta harremanen multzoa dela esan genezake, toki geografiko batean mugatu daitekeena.

Konplexutasun horren ondorioz, beharrezkoa da zenbait arau zehaztea, gizarte egitura bat sortzeko. Baina, pertsonen arteko ezberdintasunen ondorioz, posible da zenbait gatazka sortzea. Eta horretarako, arau sozialak nahikoa ez diren heinean, beharrezkoa izan du gizakiak lege formalak sortzea. Azken aipatutako hauek, aurrekoekin duten alderatzen handiena, esplizituak direla da.

Legeen helburu nagusia, gizartean bakea eta egonkortasun bat sortzea da. Horretarako, gizakiontzako beharrezkoak diren errespetatu beharreko zenbait ezaugarri finkatu behar dira. Ezaugarri horiek gaur egun, ondasun bezala ezagutzen ditugu. Azken horien artean, osotasun fisikoa, osotasun psikologikoa, ondasun ekonomikoa, eta abar daude.

Aipatu beharrezkoa da baita, gizartean badirela pertsonalak ez diren ondasun asko, eta guztion erabilerarako prestatuak dauden zenbait objektu daudela. Ondasun sozial horien babesa ere, legeen esku dago.

Gaur egun, duela urte asko bezala, legeek badute jarrera zigortzaile bat. Legea urratzen baldin bada, legeetan oinarrituriko lege bat aplikatuko zaio, kaltetutako legearen arabera. Guzti honen muinean dago, gizarteko egonkortasuna eta bakea apurtzen dela momentu batean, eta ondorioz, erreparazio bezala, zigor bat exigitzen zaio agenteari.

Hainbat esparru ezberdinetan dute aplikazioa legeek baina lan honen helburua, lege penal bat urratzearen ondorioz sortzen den ondorioetako bat aztertzea da. Lege urraketa aurrera eramanean duen agente hori gizartean arriskutsua dela interpretatzen bada, askatasuna mugatzen duen zigorra aplikatzen zaio. Eta, hortik dator hain zuzen ere kartzelen sorrera eta erabilera gaur egun ezagutzen dugun bezala.

Sakon hitz egin gabe, garrantzitsua da nabarmentzea, legekontrako jarrerak ez direla onartzen normaltasun baten baitan dauden jokaeren multzo bezala. Zentzu hertsian, normala da, arau sozial eta legeak errespetatzen dituenak. Zientzia sozialetan aztergai izan da maiz, legekontrako jarrera horien ikerketa egitea.

Ikerketa hori aurrera eramán ahal izateko, beharrezkoa da hainbat ezaugarri kontuan hartzea. Pertsona bakoitzak errealitate bat du, eta errealitate horri aurre egiteko baliabide, aukera eta gaitasun ezberdinak izango ditu. Kasu batzuetan, baliabide horiek nahikao ez direnean, zilegi ez diren jokabideak aurrera eramango dituzte beren helburuetara heltzeko.

Durkheim-en ikuspegitik, anomia-aren teoria izan genezake aurretik azaldutako arazo batzuen sorreraren bitan egon daitekeen arrazoi-erantzuko bat. Anomia-aren teoriak bere hasiera Durkheimen hitzetan izan badu ere, ondoren hainbat autorek aldaera eman diote eta etengabe garapenean dagoen teoriabat dela esan genezake.

Durkheimek lehenengo aldiz, Anomia-aren Teoria 1893. urtean erabili zuen. Industrialismo goiztarrean, banaketa sozioekonomikoak, pertsonengan zituen ondorio soziopatologikoak aztertu zituen. Ez zuen bakarrik atal ekonomikoa kontuan hartzen, baizik eta bizikidetzaren sozial batek oinarrian zituen fundamentuak baita.

Gizarte batean, lan-baldintza antzekoak dituzten indibiduoek ez dute ezberdintasun handirik izango beren egoera sozialetan, hala nola, kooperatzeko eta bizikidetzaren solidario bat izateko antzeko formak izango dituztelako. Arazoa sor daiteke, egoera hau guztiz ezberdina denean, hau da, egoera sozioekonomiko oso bananduak dituzten agente ezberdinek bizikidetzaren egoki bat elkarbanatu behar dutenean.

Lan arloan ezberdintasun asko dituen gizarte batean, alderdiak jada oso ezberdinak dira, hala nola, beraien arteko harremanak guztiz alderatzen dira, izakia beraren organo ezberdinak bailitza.

Anomia beraz, lanaren ezberdintasunen ondorioz sortzen den desintegrazio soziala izango litzateke Durkheimen hitzetan. Honek, langileen arteko harremanen eskasia ekarko luke eta ondorioz gizartearen bizikidetzaren egoki bat garatzeko zailtasunak sortuko lirateke. Ondorioz, gogobeteko harreman sozialak garatzeko zailtasunak ekarriko lituzke anomia-aren teoria errealitate den gizarte batean.

Izaera moraleko legeak ez baldin badira existitzen, ezberdintasun horien gainetik, bizikidetzaren egoki eta zuzen bat sortzea oso zaila izango da, eta alkarren arteko jarrera solidarioak garatzeko zailtasunak agertuko dira.

Anomiaren teoria hori, eguneratzen baldin badugu, eta Durkheimen kontuan izandako faktore horiek gain, beste hainbat kontuan hartzen baditugu, gaur egungo errealitatean teoria paraleloak sortzeko aukera izango dugu. Anomiaren teoria oinarri izanik, egoera sozioekonomikoen gain, ingurugiroa, faktore psikologikoak, eta lurralde eremua ere kontuan hartu beharko dugu.

Baldintza eta faktore hauek ezberdinak direnean, gizartean gatazkak sor daitezke, hala nola, beste indibiduo batzuen edo gizartea beraren interesen kontrajarriak diren ekintza edo jarrerak agertzea. Hauei, Kriminologia eta soziologiaren ikuspegitik, desbideratzearen soziologia izendatu izan zaio.

Durkheimen teoriari jarraiki, Mertonek Anomiaren teorian beste zenbait kontzeptu aplikatu nahi izan zituen. Jokabide desbideratuen arrazoi nagusia, gizarte egituraren funtzionamendu eskasa dela dio Mertonek, kontrol sozialaren porrota hain zuzen ere.

Estruktura soziala balore ezberdinekin tentsioan sartzen da egoera horien ondoiroz. Horrek, are gehiago oztopatzen du lege eta arudi ezberdinen errespetua, gizartean inposatzen dena ez da beteko. Batzuei, gizarteko posizio ezberdinen ondorioz, helburuak lortzea ezinezkoa izango zaie legen errespetuarekin. (Merton 1938)

Gizarte egoera anitzen ondorioz hainbat jarrera ezberdin sor daitezke, eta jarrera bakoitzak ondorio ezberdinak izango ditu, bai gizarte horretako arauen arabera, kulturak ezarritako baloreen arabera edo pertsonaren baitan sor daitezkeen kontraesaen arabera.

Indibiduo bakoitzaren garapen pertsonala kontuan izanik, beti izan ohi ditugu helburu ezberdinak eta helburu horietara heltzeko bideak, aniztak dira. Gizartean beraz, azken horietara heltzeko baina zenbait baliabide, eta aurretik esan bezala, baliabide horiek batzuetan aberatsak badira ere, zenbaitetan faltan egoten dira.

Adieraztekoa da, baliabide batzuk sozialki eta kulturalki onartuak direla, baina badirela bete zenbait baliabide onartzen ez direnak. Mertonek dio beraz, disoziazio kulturalak sistema sozial baten baitan sor dezakeen hierarkiaren ondorioz sor daitezkeela jokabide desbideratuak. Agente sozialak bere garapenean dituen helburuak lortzeko erabilitako bideak ez direlako zilegi.

Mertonen teoria gehiago zehaztu nahian, Clowardek zioen, kontuan izan behar dela baita, zilegi diren eta ez diren baliabideen artean erabakitze aukerak. Geruza ezberdinak definitzen ditu. Alde batetik, goiko geruzan, zilegitasuna duten jokabide eta baliabideak kokatzen ditu eta bestalde, beheko geruzan, zilegi ez direnak. Honekin, subkulturen teoretara egin nahi du ekarpena, hauetan, sasiko baliabideekiko erraztasun gehiago dagoela adieraziz.

Urte batzuk geroago, Opp soziologoak, dirudenez Merton eta Durkheimen hitzak kontuan izanik, konplexutasun gehiago eman nahi izan zion Anomiaren teoriari. Horretarako, sasiko baliabideak eta baliabide zilegiak zehaztu behar zirela zioen. Gainera, aurretiz izendatutako gizarte helburu horiek ere zehatu ebhar zirela zioen.

Oppek adibide oso esanguratsu bat mahaigaineratzen du: Gizarte helburu hori, hilabete amaieran diru-zorroa kantitate zehat batekin betetzea da. Horretarako hainbat bide ezberdin aukeratu daitezke, hala nola, lantokia aldatzea edo prestakuntza gehiago izatea lanpostua hobetzeko. Baina azken hauek, soilik zilegi diren bideak dira. Ez-legitimo diren bideak ere aurki daitezke kasu hauetan, lapurreta bat egitea adibidez, ditu kantitate hori lortzeko.

Idea guzti hauen baitan, zera bat nabarmendu daiteke, normaltasuna edo onartuta dauden zenbait jokabide edo jarrera daudela, onarpenik ez duten beste batzuei kontrajarrita alegia. Ikuspegi kriminologikotik, laguntza handikoak dira prespektiba soziokriminologiko hauek, hain zuzen ere, prebentzio eta esku-hartze proiektuetan oso lagungarriak izan daitezkeelako.

Anomiaren teoriak aurrerapausu handiak eman baditu ere, hainbat kritika jasan izan ditu, hain zuzen ere, jokabidea soilik hartzen baitu kontuan eta ezinbestekoa delako giza ingurumena kontuan hartzea. Anomiari egindako kritika nagusia beraz, deshumanizaziorako joera da. Kritika honen aintzindari nagusiak S. Lukes eta J. Horton izan dira.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta hasieran aipatutako kartzelen helburua harremandu nahian, esan daiteke, gaur egungo ikuspegi batetik, kartzelak, jarrera desbideratuak edo legekontrakoak egiten dituztenentzako direla esan daiteke. Esandakoari begira, gizarte batean arau sozial edo legeak betetzeko gaitasun, baliabide edo aukerarik ez duten guzti horiek, zigortuak izaten dira. Zigor



ezberdinak ezagutzen ditugu, hala nola, diruz ordaindu beharreko isunak daude, gizartearentzako lanak edo kartzela.

Aipatutako azken zigor mota, kartzela hain zuzen ere izango da lan honen ardatz nagusia. Eta atal gatazkatsua izan daiteke, gizartean bertan bizikidetzatza egoki bat garatzeko zailtasunak izan dituen pertsonak, batzen baldin badira toki batean, baliteke zaitasunak aurkitzea amankomunean bizitzeko.

Legezkontrako jarreraren aurrera eramaten dituzten pertsonak egun, delitugile bezala ezagutzen dira. Maiz, kartzelan sartu ostean, askatasuna berriz lortzen dutenean, berriz legezkontrako jarrerak aurrera eramaten dituzte. Delitugintzan berrerorketa ekiditen saiatzen den sistema penaleko insitutuzio bat da kartzela. Azken honen helburu nagusia delitu bategatik kondenatuak izan diren horiek birgizarteratzea da.

## 1.2 KARTZELA GAUR EGUN

Kartzelaren helburu nagusia gizartea babestea bada ere, kartzelaratuaren birgizarteratzea baita lantzen da kartzelaratuarekin. Kartzelak pertsona horri, bere mugimendu librerako eskubidea mugatzen dio. Interpretatzen da, legezkontrako jokabidea izan duen agenteak, gizartean bizikidetzarako zailtasunak dituela eta beraz, gizartetik at birgizarteratzeko helburuarekin sartzen dira kartzelan.

Alde batetik, gizartean egoera larri bat sortu duen pertsona hori, gizartetik kanporatzen da. Noski, kontuan izan beharrekoa da, gizartetik kanporatze horrek, arazo pertsonalak sor ditzakeela. Beraz esan daiteke jada, gizarteak pertsona hori ez duela normaltzat hartuko, normaltasunetik kanpo dagoen jarrera edo jokabide bat izan dutelako. Ondoren azalduko dugu azken aipu hau.

Bestalde, kartzelak komunitate gehienetan existitzen dira, eta duela mende asko sortu zituzten. Legezkontrako jarrera horiek, tipifikatuak daude zuzenbide penalaren ikuspegitik, eta hain zuzen, zuzenbide arlo hori da kartzelaratzeko zigorrak esleitu ditzakeena.

Egun, zigor establezimenduetaz hitz egiten denean, legegile espainiarrak kartzela hitza erabiltzen du eufemismo bezala. Iraiak 26ko 1/1979 Lege Organikoko

1 eta 8 artikulak, establezimendu hauen inguruan mintzaten direnean, birgizarteratzera eta berrezterara bideratuta dauden tokiei buruz ari dira.

Itxuraz zigor establezimendu hauek beti horrelakoak izan direla eman dezake, baina ez da beti horrela izan. Delitugileei beren mugimendu askatasuna denbora batez murriztea, delitu bat egiteagatik, XVIII. mendean sortu zen ideia bat da, politika kriminalaren eskutik. Instituzio moderno bat dela esan genezake.

Eredu honen aitzindariak XVI. mendean hasi ziren garatzen. XVII. mendean Britainia Handian "Etxe Zuzentzaileak" sortu ziren. zaharrenak bezala "House of correction" esaten zaie en 1552, "*pensada para la corrección de aquellos pobres, que estando aptos para el trabajo, se mostraran recalcitrantes resistiéndose a trabajar*". (Peña Mateos, J. 1997)

Aipatutako azken zera kontuan izanik, esan genezake, bere garaian behar bada delitugiletzat kontsideratzen zen, normaltasunetik at zeuden jokaerak. Gizarte haietan, XVII. mendean lan egitea beharrezkoa zen eta lan egiten ez zuena, desbideratu bezala kontsideratzen zela ulertu genezake, legezkontrako jarrera bat balitz bezala lan ez egitea.

Hori baino lehen, XVI. mendean, beste etxe batzuk sortu ziren Herbeeretan, Suizan eta Alemaniako zenbait hiritan, Hamburgo, Lübeck, Bremen edo Munichen, besteak beste. Kasu haietan gizarteko bazterreko taldeak kartzelaratzen zituzten, hala nola, erromesak, mozkortiak, lapurrak edo prostitutak. Praktika hauen helburua okupazio praktiko bat bideratzea zen. 1596. urtean Amsterdamen gizonak egur tropikalak ezpaltzen zituzten, txirbil natural gisa erabiltzeko, emakumezkoak jostun-etxeetan zeuden bitartean.

Kartzela sistema hauen eredia jarraiki, Erdialdeko Europan zuzentze etxe berriak sortu ziren. Aldaketa nabarmen bat izan zen, 1704. urtean Papa Clemente XI.ak "Hospicio de San Miguel" eraiki zuen Roman. Gazte delitugileak gauean eraikin honetan isolatuta zeuden beren ziegetan.

Kartzelak, gaur egun ordea, birgizarteratzeko helburua du, hau da, gizartean bizikidetzat bat garatea posible izan ez duen pertsona bat, gizartetik ateratzen da, gizartetik ateratako beste zenbaitekin elkarbizitzan arituz birgizarteratze prozesu bat izan dezan

### 1.3 KARTZELARATZEA ETA BERE HELBURUAK

Zuzenbide internazionalaren hitzetan, kartzelaratzearen helburua ez da mugitzeko askatasuna mugatzeko helburuarekin soilik aplikatu behar. Kartzelaratuak ezagutza eta gaitasun berriak eskuratzeko aukera izan behar du, zigorra betetzen ari den bitartean, ondoren, gizartean birgizarteratze posible bat izan dezan, askatasuna lortzen duenean. Helburu hauen arrazoi nagusia, berrerorleak ekiditea da.

Kartzelaratzek birgizarteratze prozesu garaian sortu daitezkeen arazoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duen heinean, badira beharrezko diren hainbat legeri, hala nola, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, zeinak ondorengo adierazten duen: *“[e]l régimen penitenciario consistirá en un tratamiento cuya finalidad esencial será la reforma y readaptación social de los penados”*.

Birgizarteratzeko aukera kartzelaratu guztiei eskeini beharreko zerbait izan behar litzateke, baina, kartzelaratzeko prebentiboa betetzen ari diren zigortuentzako ere, ekintza baliagarriak egiteko aukera eskaini beharko litzaiokete. Prebentziozko kartzelaratzeko betetzen dauenen populazioa maiz, kartzelaratuaren ehuneko handi bat da hainbat herrialdetan, baina ezaugarri horren ondorioz, birgizarteratze programetan sartzeko ez dute aukerarik.

Presoen Tratamenduko Nazio Batuen gutxieneko arauak (Nelson Mandela Arauak) nazioarteko legedi garrantzitsuena dira eremu honetan. Arau horiek hain zuzen ere ondorengo esaten dute: *“los principios y prácticas que hoy en día se reconocen como idóneos en lo que respecta al tratamiento de los reclusos y la administración penitenciaria”*. (3. Artikulua)

Lege horien inguruan hainbat azterketa egin izan dira. Lehenengo bertsoa 1957. urtean onartu zen. Baina Nazio Batuen Batzar Nagusiaren eskutik 2015. urteko abenduan onartu ziren, XXI. mendeko kartzela prozeduren erregulazioa onartzeko. Kontuan izan beharrezkoa da, urte guzti hauen buruan, kartzela eredu aldaturaz joan dela eta beraz, ebarrezkoa izan dela legeak eguneratzea.

Lege hauen oinarriko printzipioa birgizarteratzearekin lotuta dauen jarrera edo joerak lortzea da, hala nola, errespetuzko bizitza bat aurrera eramateko borondatea eta gaitasuna dira joera horietako garrantzizuenetariko bi. Noski, motibazio horiek ere, legearekiko lantzen dira baita. Gainera, askatasuna lortu

bezain laster ekonomikoki mendekotasunik ez izateko motibazioa ere oso garrantzitsua da birgizarteratzeko prozesuetan lantzea. Honela, posible izango genuke berrerorketak ekiditea eta segurtasun publikoa bermatzea.

Aurretik azaldutako printzipio hauek, ikerketa enpirikoetan lortutako emaitzen ondorio izan dira. Horren adibide bat dugu, Ameriketako estatu batuak eskala handi batean egindako landa lana. Ikerketa horien arabera, ikaskuntzan eta lanean ari ziren kartzelaratuak, hein handi batean, berrerortzeko aukera gutxiako izango dute prozesu horretan parte hartzen ez dutenek baino.

Nazio Batuen Errelatore Bereziak, ikaskuntzarako zuzenbideari buruz, kartzeletan ikasteak berrerortzean, birgizarteratzean eta lana aurkizeko gaitasunetan modu positibo batean eragiten duela esan zuen. Beraz, esan genezake, badela zuzeneko harreman bat ikastea eta motibazio zein gaitasunekin. Garrantzitsua da beraz, kartzelaratuarengan ikasteko nahia sortzea, eta askatasuna lortzean, bizitza normatibo horren inguruan, motibazioak izatea.

Errelatoreak konkretuki, ikaskuntzara bideratutako programak bultzateko beharra mahaigaineratu zuen. Programa hauek, kartzelaratu bakoitzaren potentziala pizteko helburu nagusia izan beharko lukete, beraien gaitasunak zehaztuz eta hauen inguruan lanketa egin. Programa hauek gainera, kartzelaratzearen eragin negatiboak murriztu beharko lituzke, eta birgizarteratzeko prespektiba hobetu. Birgaitzea, autoestimua eta moralala ere lantzea oso garrantzitsua izango da, aske geldituko den kartzelaratu baten etorkizunerako.

Hezkuntza eta lanbide-heziketak, berrerortzeko aukerekin nolabaiteko harremana duela mahaigaineratu zuen aurretik aipatutako ikerketak. Gainera, frogatua gelditu zen, kartzelaratuak etorkizunean lanerako aukera gehiago izango dituela. Estatuarentzat ekonomikoki bideragarria litzateke baita, hain zuzen ere, berrerortze tasak zekulako kostu ekonomikoak sortzen dituelako eta modu honetara, berrerortzea gutxituz gero, gastu ekonomiko asko ekidin daitezkeelako.

Azterlan horren emaitza zehatzek, heziketa programa hauetan parte hartzen dutenen %43ak, berrerortzeko aukerak murrizten zituzten, programa hauetan parte hartzen ez zutenekin alderatuta. Beraz, esan genezake, legearekiko errespetua sustatzen dela hezkuntza programa hauen bitartez.

Lan munduan sartzeko aukerak %13 gehiago zituzten programetan parte hartzen zuten zigortuek, parte hartzen ez zutenek baino. Programa hauek lan munduan sartzeko motibazioa pizten dute, eta ekonomikoki mendekotasun gabe bizitzeko nahia ere sortzen dute. Gainera, lanbide-heziketako programetan izandako kartzelaratuak, parte hartzen ez zutenekin alderatuta, beren aukerak %28a igotzen ziren, lan-munduan aritzeko.

Kartzela sistema askotan ordea, kartzelaratuak ez dute izaten hezkuntza eta lanbide heziketako programetan sartzeko aukerarik izaten, ezta kartzelan bertan lan batean egoteko aukerarik. Harrigarriki, ekonomikoki egoera dexentea duten herrialdeetan ere kartzela sistemak zailtasunak izaten dituzte kartzelaratuak hezkuntza programak eskaintzeko. Beharrezkoa litzateke programa hauen sustapena kartzela populazio guztiari laguntzeko.

Kontuan hartzekoa da, kartzelaratuaren etorkizuna oso garrantzitsua den arren, beharrezkoa dela kartzelaratuak kartzelan igaro behar duen denbora tartea, ahalik eta baldintza egokienetan egitea, bai etorkizunerako itxaropena hobea izateko, baina baita kartzelan dagoen bitartean bizikidetzak egoki batean egoteko.

Europar Batasuneko Hezkuntzako azterketa batean adibidez, Europar Batasuneko kartzela populazioa 640.000 izanik, kartzelaratuak prestakuntza urria dutela ondorioztatu zen emaitzak kontuan hartuta. Populazio horretako laurdena baino gutxiagok hartzen du parte Hezkuntza eta heziketa-profesionaleko programetan. Gainera, ekonomikoki ahulagoak diren herrialdeetan, parte hartzaileen koputua urriagoa izaten da normalean.

Aurretik soilik azaldu ditugun ezaugarriez aparte, kartzelaratuaren ongizaterako beharrezkoak dira beste hainbat elementu. Egiazkiro birgizarteratzaile den kartzela erregimen batean, beharrezkoa da kartzelaratuaren oinarriko beharrak asetzea, bizi-baldintza duinak hornitzea, behar bezalako osasun arreta bermatzea, presondegiko populazio guztiaren artean harreman osasungarriak sustatzea... Elementu hauek betetzen ez badira, posible da birgizarteratzera bideratuta dauden programek huts egitea.

Kartzelaratuak zigorra betetzen duen heinean beharrezkoa badu ikuskerak, beharrezkoa da baita, kartzelatik ateratzen direnean ere, laguntza eta gainbegirada bermatuko duten programa edo akordioak sortzea. Kanpo zerbitzu horiek falta baldin badira, zigortuarekin landutako birgizarteratze prozesua arriskuan

egon daiteke, eta aske gelditu den indibiduo horrek bere delitugintzako “ohitura zaharrak” hartzeko aukerak izango lituzke. Jokabide kriminal horien ondorioz, gizartean bizikidetzarako lortutako gaitasun horiek ahaztu, eta prozesua berriz hasi beharko litzateke.

Birgizarteratze programak beharrezkoak dira kartzelaratuengatik ongizaterako, bai kartzela barruan izango duten bizitzarako eta baita, kartzelatik ateratzean beraien etorkizuna lantzeko. Kasuan kasu, presondegietan bizikidetzara egoki bat bermatu behar da baita, zigortuek beren artean harremanak ikasteko, eta beren gaitasun kognitiboak hobetzeko. Esan dugun bezala, autoestimua eta moralak lantzea ere funtsezkoa izango da, espetxeetan oreka bat mantentzeko.

### 1.3.1 KARTZELA ETA UNIBERTSITATEEN HARREMANA

Kartzela sistemak oso ezberdinak dira herrialdearen arabera, eta beraz, birgizarteratzeko erabiltzen dituzten metodoak oso ezberdinak dira. Presondegian dauden espetxeratu eta langileen artean dagoen harremanak ere, eragin handia izango du. Gizartearekin alderatzen bada, gizartean bizikidetzara egoki bat badago, bertako biztanleentzako errazago izaten da motibazioa izatea helburu pertsonalak lortzeko. Kartzelan, antzeko zerbait gertatzen dela esan daiteke.

Herrialde batzuetan, kartzelak unibertsitatearekin loturak ditu, hala nola, kartzelaratuengatik goi-mailako ikasketak egiteko aukera emateko. Programa hauek, espetxeratu eta ikasleen arteko harremanak posible egiten ditu, eta kartzelaratuengatik eredu izan daitezke goi-mailako ikasketak egiten ari diren ikasle horiek. Kartzelan ikasten hasteko aukera dute, eta ondoren, kartzelatik kanpo bukatu ditzakete hasitako titulu hori.

“Learning Together” izeneko proiektu batean, Erresuma Batuetan eginikoa, Kriminologiaren inguruko ikasketak eskaini izan dira, ikasle eta espetxeratuengatik. Proiektu honen interpretazio erakargarri bat da, Kriminologiak, espetxe inguruneetan izan beharko lukeen presentzia beharrezkoa dela, eta oso baliagarri litzatekeela bai presondegiko langile eta kartzelaratuengatik.

Proiektu berritzaile hauen helburua birgizarteratzea dela argi dago baina, horretarako oinarri-oinarrian birgizarteratzeak duen zentzua, gizartean bizitzeko gaitasuna bultzatzea da. Beraz, gizartean bertan dauden aukeren antzeko ekintzak

kartzela barruan sustatzea ezinbestekoa da. Funtsean, bizikidetzarako baliabiabideak eskaini behar dira.

Kartzeletan programa berriak sartzen direnean, bai hezkuntza, heziketa-profesional edo lanarekin harremana duten programek, jarraipen bat izatea beharrezkoa izango da. Jarraipenari esker, lorpen eta oztopoak ikertu daitezke. Ondorioz, ikerketa horren bitartez, neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera egongo da. Honen adibide bat izan daiteke, hezkuntza programa batean, zigortuek ikasgela batean eduki behar duten jarrera ez ezagutzea eta ikastetxeetako bizikidetzara arauak aplikatu beharko dira.

Errehabilitazio eta birgizarteratze programetan beharrezkoa da kartzela autoritateek azken hauek ikuskatzea. Jarraipen hori onuragarria baita bai zigortuarentzako eta kartzelan dagoen egoera orekan mantentzeko.

Helburua informazioa sortzea izango da ondoren erabakiak hartzeko. Ikerketa horietan antzeman diren arazoei aurre egiteko aukera egongo da eta helburuak lortzea askoz ere errazagoa izango da.

### 1.3.2 MARTUTENE ETA BERE LIMITAZIOAK

Aurretik azaldutako programak oso baliogarriak diruditen harren, beharrezkoa da errealitatean hauek aztertzea eta ikustea ea nola gestionatzen diren gure inguruko kartzeletan. Horretarako, Martutene kartzelan Arartekoak egindako ikerlan bat oinarritzat harturik, bai eraikin eta beren aukerei buruz arituko gara ondoren.

Arartekoak ikerlan hau egiteko EAeko kartzela ezberdinetara bisitak egin zituen. Martuteneko kartzelara egindako bisitan, badirudi, Basauriko kartzelan izandako antzeko esperientzia izan zutela ondorioz bezala. Zentroak berak limitazio handiak pairatzen ditu, bai zahartuta dauden zentroak direlako eta ez dutelako toki nahikorik gaur egun birgizarteratze eta errehabilitazio programak behar bezala garatzeko.

Honek sortzen duen arazo nagusia, espetxeratuaren oinarritzako beharretara ezin erantzutea da. Hala, delitugile talde ezberdinak dauden heinean, toki ezberdinak beharko lituzkeelako beren ekintzak aurrera eramateko. Bizitza

erregimen ezberdinei aurre egiteak ere zailtasunak agertzen ditu, espazio murriztua dutelako. Arartekoan antzeman diren arazo nagusiak ondorengoak dira:

Erabilera komunerako toki gutxi dago, hala nola, lan egiteko tokiak, kiroldegia, irakurketarako lekuak... Kartzela osoan horren arazoa badago ere, emakume eta gazteen moduloak dituzte toki mugatuenak. Emakumeen patioa oso txikia da, eta liburutegiak toki urria dute, beraz, ez da nahikoa. Kasu honetan, espetxeratuen hezkuntza eta hazkuntza pertsonala oso mugatua suertatuko litzateke. Kontu handia izan behar da hemen, norberaren espazio pertsonala lantzeko arazoak baldin badaude, posible delako espetxeratuen arteko bizikidetzan ondorio latzak izatea.

Logela nahikoa ez dagoenez dauden espetxeratu guztientzako, logelak banatu behar dituzte eta ondorioz posible da beraien artean liskarrak sortzea. Hemen ere, beharrezkoa litzateke logelaren banaketa zentzuz egitea eta beren arteko harremanak kontrolatzea.

Kartzeletan egiten diren tailerrak aurrera eramateko arazoa dago, espazioa oso urria delako eta kartzelaratu guztientzako ez dagoelako aukerarik. Espetxe biztanleria kontuan izanik, soilik gutxi batzuk dute tailerretan parte-hartzeko aukera. Tailer hauek, ordainsari bat ematen diote parte hartzen duenari.

Aurretik azaldutakoaren harira, ondorioztatu daiteke, badirela kartzelan dauden pertsonen artean ezberdintasun nabariak, ez dituztelako guztiek birgizareratze programetan eskaintzen diren ekintzetaz gozatzen eta beraz, ez dute izango kartzelan dauden denboran aurrerapen berdina. Honek liskar handiak sor ditzake, hain zuzen ere, desbideratzearen teoriari jarraiki, posible delako espetxeratu hauek ere, kartzelan jokaera desbideratuekin beren etekinak lortzeko ekintzak egitea. Gizartean posible izan ez duten bizikidetzarekin alderatu daiteke hemen kartzelan duten egoera soziala.

Kartzelan, noski, hasieratik ezberdintasun pertsonalak eta sozioekonomikoak nabariak izango dira, beren bizitza pertsonalaren noranzkoen ondorioz. Baina, espetxeek lortu beharko luketeena beren birgizareratze prozesuen balioagarritasuna berdina izatea da. Horretarako beharrezkoa da, dauden ezberdintasun horiek gutxitze ate berdintasuna areagotzea.



Hezkuntza programetan sartzeko ere muga handiak dituzte Martuteneko espetxeratuek. Azken hauen ikasketa mailak kontuan hartzen bada, interesgarria litzateke hezkuntzarekin harremanduta dauden proiektuak sustatzea eta eskaintzea kartzelan dauden denbora aprobetxatzeko. Gainera, bisita egin zen unean, gela hauek hutsak zeuden uda garaia zelako eta udan ez delako hezkuntza proiektu hauen ordez beste ezer eskaintzen.

Hezkuntza proiektuak oso baliagarriak dira, pertsonaren gaitasun kognitiboak bultzatzen dituelako eta beste zenbait presorekin harremantzeko aukerak sortu daitezkeelako.

Alde batetik, kartzelan uda sasoirik egoteak ez du zentzu handirik, hain zuzen ere, beraiek denbora hori aprobetxatu behar dutelako. Espetxeetan ez dago uda sasoiaren geldialdi bat egin beharrik, ez dutelako oportetean joateko aukerarik izango edo familikideekin denbora pasatzeko aukera. Honek sor dezakeen arazo handi bat da, ikasketetan motibazioa garatu duen pertsona batek, motibazio hori uda garaian galtzea (kartzelatik kanpo dauden gizarteetan gertatu daitekeen bezala).

Birgizarteratze prozesu batek ez du etenik jasan behar, ez baita onuragarria hezkuntza edo beste motatako ekintzak egiten ari den espetxeratu bati etenaldiak ematea, prozesua arriskuan jarri daitekeelako. Arrisku hori, libre duen denboran bere helburu pertsonalak galtzearena da, kurtsuan zehar sortarazi zaizkion ideiak bertan behera gelditu daitezkeelako.

Bestalde, aipatu izan da Martutene oso eraikin txikia dela eta mugatua dagoela ekintzak behar bezala garatzeko. Uda garaian hezkuntza programak eten egiten badira, pertsona horiek patioan elkartuko dira beste espetxeratuekin, eta tokia murrizagoa izango da. Arazoak sor daitezke kartzelaratuen artean, tokia elkarbanatu beharko dutelako. Hemen liskarrak sortzeko arriskua antzeman daiteke.

Liburutegiko liburuak zaharkituak daude eta beraz, barruan dauden pertsonak ez dute aukerarik egunerokotasuneko gauzei buruzko informazioa izateko. Liburu zaharren presentzia honek izan dezakeen arazoetariko bat, gizarteratzen diren heinean, desinformatuak egotea izan liteke, eta berrerortzeko arrisku bat izan daiteke hori.

Eraikina nahiko zaharra denez, garbitasuna mantentzeko arazoak sor daitezke, itxuraz instalazio garbi bat mantentzea oztopatzen baitu eraikinak dituen materialak. Komunetan eta dutxetan egoera hau asko nabaritzen da, guztizko garbitasuna mantentzea oso zaila delako zaharkituta dauden tokietan. Iluntasun itxura honek, espetxeratuaren ongizatean eragin dezake hein handi batean.

Espetxeratuak kartzelan dituzten bzipenen araberako birgizarteratzea izango dute. Gainera, oso garrantzitsua izango da kartzelan bertan duten bizikidetzak bai beren artean eta presondegiko langileekin duten harremana.

Bizikidetzak egoki bat izateak, aurretik aipatuta baldintza zuzenak izatean datza. Hala nola, hezkuntzarako aukera posiblea, lan jardueretan aritzeko baliabideak, programa ezberdinetan parte hartzeko nahia izatea, eta abar. Garrantzi handikoa da, kartzelan duen egoeraren ondorio izan daitekeela kanpoan presoak izango duen jarrera, bere heziketa eta birgizarteratze prozesua jokoan dagoen tokia presondegia delako. Espetxeetan, gizartean bizitza duin bat izateko gaitasuna eta motibazioa lantzen baditu, espetxetik kanpo ere aukera horiek isladatu beharko lituzke.

Martutene espetxe zaharkitua da eta egun, ixteko prozesuan daude, baldintza hobetoak diren beste presondegi batera eramateko barneratuak. Esan daiteke beraz, egun, Martutenek ez dituela baliabide materialak birgizarteratze prozesu egoki bat bideratzeko.

### 1.3.3 BIRGIZARTERATZEA ETA BERRERORTZEA

Gizarteratze sozialaz mintzatzean, gizartean sozialki eta psikologikoki integratzeari buruz ari gara. Delituaren aurrezaintzan diharduten agente eta justizia penalaren ikuspuntutik alegia, gizarteratze prozesuak legearekiko errespetu bat izatea esan nahi du, berriz ekintza deliktiboetan ez ibiltzeko. Azken ikuspuntu horretatik berrerortze tasa guxtiagotzea lortu nahi da, eta legearekin dituzten gatazkak murriztea.

Birgizarteratzeko prozesuan diharduten esku-hartzeak beraz, sistema judizialean lan egiten duten agenteen helburu nagusietariko bat da, hala nola, hezkuntza instituzioak, organismo sozialak, ONG batzuk, delitugileen familiakideak, eta abar. Prozesu honetan ez dute soilik presondegiek parte hartuko, garrantzitsua

delako gizarteko beste eragile batzuekin kooperazioa egotea, kartzelaratzearen ondoren esku-hartu beharko dutenak.

Kartzelaratuako pertsona, izan dituen harremanetatik eta bizitzatik at uzten da guztiz, bere mugimendu askatasuna murriztuz. Gizarte batetik ateratzen dute, beste gizarte sistema batean sartzeko, guztiz ezberdina dena. Uler daiteke zentzu hertsian, bere bizitza guztiz aldatu dela eta beste bizitza berri bat esleitu diotela espetxeratzen den pertsona horri.

Pertsona bat bere ingurugirotik ateratzeak eragin handiak izan ditzake bere egoera pertsonal eta sozialean. Lanean baldin badago, lanetik botatzea, edo familiak pertsona honekin harremanak uztea, eta abar.

Kontuan izan behar dira hainbat ezaugarri pertsonal presoaren inguruan. Ezaugarri horiek oinarri hartuta, presoarentzako egokiena den programa edo tratamendu bat esleitu beharko zaio bere birgizarteratzea posible izan dadin, eta berrerorlea izatea ekiditeko.

Kontuan izan behar da zer delitu egin duen eta pertsona horren bizitzako zein aspektutan esku-hartu nahi den. Programa ezberdinak delitugileak egindako legekontrako ekintza horretara zuzendu behar da, aurretik, agente penalen ikuspegitik, legea errespetatzearen helburuarekin landu behar delako birgizarteratze prozesua.

Legea urratu du pertsona batek, eta beraz lege hori errespetatzeko motibazioa sustatu behar zaio, horrela berrerorleak ekidingo dira eta gizartean dagoen babesa materializatuko da.

Oso zaila da praktikan hau posible egitea, bai aurretik azaldutako muga materialen ondorioz, eta baita pertsonak berak izan nahi dituen aukeren ondorioz. Hurrengo atalean ikusiko dugun legez, programa eta tratameduetan parte hartzea guztiz borondatezkoa da.

Autore batzuen hitzetan, gizartetik kanpo gizarteratzearen ondorioz, are eta zailagoa da kanporatu zaion gizarte horretan berriz integratzea. Alde batetik, kartzelan izan dituen aukera ekonomiko eta sozialak beharbada kanpoan galdu dituelako eta bestalde, gizarteak egun kartzelaratuengan konfiantzarik ez duelako, berriz delitugintzan sartuko direnaren ustearen ondorioz.

Pertsona bat kartzelan egon dela jakitean, lanpostu askotan jada sarbidea mugatzen dute eta ondorio larri bat izan liteke kartzelaratuaren birgizarteratzean. Hain zuzen ere, prozesu hori ez delako kartzelatik irtetzean bukatzen.

Esan daiteke, gizartetik baztertzen direla kartzelan sartzen diren pertsonak eta neurri honek baduela izaera baztertzailer bat. César Manzanosen hitzetan, isolamendu egoera honek gizartearekiko hainbat arazo sor ditzake, eta bere hitzetan, presoak gizartetik aldentzen dituen bost pausu ematen direla pertsona espetxeratzen den momentuan.

Manzanosen hitzetan kartzelaratzeko fisikoki kanpo munduarekiko haustura bat sortzen du, eta honek estimulu fisikoak guztiz mugatzen ditu, hala nola, entzutezko estimuluak, estimulu bisualak, eta abar. Kartzelaratzeko prozesuak eremu txikiago eta mugatuago batean du bere garapena, eta estimuluak zeharo gutxitzen dira. Noski, ez da soilik kanpo munduarekiko fisikoki aldentzen, bere harreman interpersonek ere aldentzen da. Espetxeratuarentzako eredu diren pertsona horiekin ez du etengabeko harreman bat izango eta posible da bakardade eta babesgabatasuneko sentimenduak izatea.

Egokitzapen soziala eta identifikazio pertsonala galtzen ditu presoak espetxeratzeko prozesuaren ondorioz. Prozedura juridikoak duen prozesu geldoak eta etengabeko aldaketek, posible egiten dute presoak bere benetako izaeraz aldentzea. Gainera, bere ingurugiro sozialetik ateratzeak, desoreka bat sortu dezake kartzelaratuarengan. Despersonealizazioa eman daitekeela dio Manzanosek, eta indibidualizazio sistemaren aurka doan praktiken ondorioz, zenbaki bat balitz bezala sentitzera bultzatu dezake presoak.

Kritika asko jasari ditu espetxe-zigorrek, baina kasu askotan, pertsonak birgizarteratzeko eta bizitzan gizarteratzeko aukera bat eman die batzuei. Badira kasuak ordea, berrerorle izanik, behin eta berriz kartzelaratu dituztenak eta beren motibazioa batzuetan urratua suertatzen dela.

Kartzelak dituen helburuak aipatu ditugu, eta horien artean, legeekiko errespetuan bizitzea izan da horietako bat. Legeak berriz urratzen dituenak baita berrerorlea kasu honetan. Baina berrerorle ez izateko beharrezkoa kartzelaratu hori baldintza zuzen batzutan bizitzea, gizartearen egongo balitz bezala.

Presoak kartzelako ingurugirora moldatzen dira biziraupenerako teknika bezala, eta ondorioz aldaketa pertsonal bat ematen da, egokitzapen horrek, aldaketak sortzen dituelako espetxeratuaren baitan. Batzuen hitzetan prozesu hau “*prisonalización*” bezala ezagutzen da.

Presondegian sartutako pertsona horren jarrera, jokabide eta baloreak aldatu egiten dira, eta kartzelako subkultura batean integratzen da. Gainera, kartzelako autoritateekin zapalkuntza eta autoritarismoa oinarrian dituen harremanak sortzen ditu. Egoera hau oso arriskutsua izan daiteke birgizarteratze prozesuarentzako, pertsonaren ezaugarrien arabera arauetikiko errespetusko jokaera bat garatu dezakeelako edo alderantziz, arauen kontrako jarrera bat ematea posible da. Kartzelan gainera, mesfidantza, errezelo, susmo eta abarreko sentipenak ohikoak izaten dira, biziraupenerako.

Aipatzeko beste puntu garrantzitsu bat da familiarekiko kontaktua galtzea ez dela onuragarria izaten presoarentzako, bere jarreran eragin handia izan dezakeelako. Familiak kontaktuzko harreman bat izateko normalean zailtasunak izaten ditu, kartzela gehienak hirietatik kanpo aurkitzen direlako, eta askotan, komunikabide zailekoak izaten dira. Kontuan izan behar da, badirela familia batzuk ez dutela baliabide ekonomikorik presondegietara bisitan joateko, eta honek kartzelaratuarengan komunikazio falta sortzen duen legez, beste harreman batzuk sortzen ditu kartzelan bertan.

Aspektu psikologiko eta sozialetan du eragina familiarenandik urrun egoteak. Espetxeratuak sor ditzakeen sentipenetako batzuk ondorengoak izan daitezke: kezka, babes falta, lasaitasun eza... Baina badira askoz ere arriskutsuagoak diren beste zenbait, hala nola, seme-alaben uztea, arazo ekonomikoak, tentsioa, familiarekiko harremanen guztizko haustura, arazo psikiatrikoak, eta abar.

Kartzelatik irtetzean, kanpo munduarekiko izandako komunikazio faltak ere arazo handiak sortzen dizkio kartzelaratuari. Gainera, kartzelan egotearen ondorioz, gizarteak estigmatizatzen duen talde marginal batean sartzen da presoak. Azken honek lan munduan sartzeko arazoak sortzen dizkio espetxeratuari eta oso zaila izaten du bere birgizarteratzea modu egoki batean lantzea.

Aurretik azaldutako guztia kontuan izanik, birgizarteratze eta errehabilitazio prozesuak praktian baliagarriak izatea oso zaila dela ondoriozta genezake. Presoak, zailtasun handiak aurkituko ditu hasteko espetxeratzen duten momentuan,

espetxean dagoen bitartean, eta handik ateratzean. Lan zaila da bai kartzelako talde teknikoarentzako zein presoarentzako, arazo horien gainetik birgizarteratze prozesu egoki bat izatea.

Gizarteratze prozesuak ez dira beti askatasun gabetzaileak diren neurrien bitartez garatzen. Autore askoren hitzetan gainera gizarteratze prozesu horiek komunitateetan egitea onuragarriagoak direla esaten dute.

Aurretik azaldu dugunaren ildotik, birgizarteratzea askotan oztopatua suertatzen da kartzelaratze prozesuarekin batera, eta arazo larriak sor ditzake espetxeratuko den delitugilearengan. Pertsona bat espetxeratu da, gizarteratzearen arriskutsua delako, edo ezin duelako bizikidetzara egoki bat eraman askatasunean bizitzen. Kartzelan ustez, bizikidetzara hori posible izateko baliabideak emango zaizkio, baina praktikan arazo asko sortzen dira honen harira.

Kontuan hartzekoa da, delitugilea ingurugiro sozial batetatik atera dela, eta kartzelan ingurugiro horretara bueltatzeko prestatuko zaiola, baina komunitate hori espetxeratu hori jasotzeko prest dagoen ere ikusi behar da. Beraz, ikus genezake, birgizarteratzean badirela aztertu beharreko hainbat faktore, eta horiek oinarritzat izanik, presondegian bizikidetzara hezitzaile bat garatu.

Berrerortzearen aurkako programak eraginkorrak izan behar dira eta horretarako delitugilearen hainbat ezaugarri hartu behar dituzte kontuan. Delitugintzan berrerortze izateko arriskua sortzen dituzten arrisku faktoreak aztertzea beharrezkoa izango da, baina faktore laguntzaileak edo onuragarriak ere kontuan hartu behar dira hauek indartzeko. Arrisku faktoreak gutxitu eta faktore laguntzaileak bultzatu beharko dira kasuan kasu.

Arrisku faktoreen artean antzeman daitezke ondorengo batzuk: biktimizazio goiztiarra, ikasketetarako zailtasunak, substantzien kontsumoa, babesik eskaintzen ez duten familiak, gaixotasun edo pairamen psikologiko eta fisikoak... *“Algunos factores de riesgo son dinámicos — en el sentido de que son dóciles al cambio — mientras que otros factores de riesgo no lo son”* (G. Harper y C. Chitty, 2005). Dinamikoak diren faktoreak beraz erraztasunez tratatu daitezke, baina besteekin egin behar da benetako lanaketa.

Gehiago delitugileak hainbat erronkarekin aurkitzen dira birgizarteratze prozesuetan barneratzen direnean, hala nola, erronka sozialak, ekonomikoak eta

pertsonalak, zeinek prozesua ostopatzen duten normalean. Desafio hauen iturria askotan ingurugiro sozialaren ondorio izaten dira, familia, lankide, substantzia kontsumoa, hezkuntza falta... Delitugileek isolazio sozialeko egoeretatik etorri daitezke, langabezi egoeran egoteagatik, edo delitugintzarekin zuzeneko harremana duten inguru sozialetan jaio izatearen ondorioz.

Delitugileek ezgaitasun fisikoak edo mentalak pairatu ditzake eta oso garrantzitsua izango da hauek kontuan hartzea beraien birgizarteratze prozesua bideratzeko. Substantzien kontsumo handia dutenen kasua ere kontuan hartu beharko da, zailtasunak sortzen dituelako egoera horrek. Espetxeratu askok, beren komunitatean arrakasta izateko legezkontrako jarrerak izaten dituzte, harreman interpertsonaletan zailtasunak dituztelako, hezkuntza maila baxua dutelako edo planifikazio gaitasun urria dutelako.

Askotan, berrerortze tasari buruzko ikerlanek informazio asko ematen digute kartzela sistemaren eraginkortasunari buruz. Beraz, aukera dago ikerketa hauen ondorioz, birgizarteratzeko programak aztertu eta zuzentzeko.

Hurbilketa simple bat egiten badugu, esan genezake kartzelaratuak berriz espetxera bueltatzen badira, espetxeratuak izan ostean, kartzela sistemak birgizarteratzeko helburuak betetzen ez dituela, eta aurrezaintzan ere huts egiten duela. Ostera, kartzelara gutxi batzuk bueltatzen badira, kontrakoa ondorioztatu genezake. Berrerortze tasa gutxiagotzen delako eta beraz, preso izan den pertsona horrek askatasunean bizitzen ikasi du.

Berrerortze fenomenoak haibat faktore ezberdinekin du zuzeneko lotura, hala nola, segurtasun politiken egoera momentuan bertan, kontrol polizialaren baliogarrtasuna eta bere lehentasunak, legedi espezifiko bat aplikatzearen ondorioak, subjektu bakoitzak bere delitugintzako ibilbidea aldatzeko dituen aukerak, politika sozialak, eta gizarteak eskaintzen dituen birgizarteratzeko aukerak besteak beste.

Berrerortze tasan eragin handiena duen faktorea espetxeratuak kartzelan igarotzen duen denbora nola igarotzen duen da. Funtsezkoa izango da presoak kartzelan bizikidetzarako zantzu batzuk ikastea eta hauen baliogarrtasuna praktikan gizartean jartzea. Horretarako behar-beharrezkoa izango da programa eraginkor bat, non hainbat agente sozialek parte hartu beharko duten, hala nola, psikologoak,

juristak, hezitzaile sozialak, langile sozialak, medikuntza arloko profesionalak, irakasleak eta kriminologoak.

Gainera, ezinbestekoa izango da kartzelan sartu den pertsona horren karrera deliktiboa eta bere esperientzia pertsonalak ezagutzea, hauen artean harremanak sortzeko eta esku-hartze errazago bat izateko. Kartzelan pertsonak izango duen egokitzapena zuzena baldin bada, berrerortze tasak asko gutxituko dira eta gizartean ondorio positiboak emango dira.

#### 1.4 KARTZELA ERREGULAZIOA

Kartzela sistemak herrialdez herrialde aldatzen dira, baina badituzte errespetatu beharreko gutxieneko arau batzuk. Arau eta lege horien artean badira, internazionalak eta nazionalak. Lege internazionalak instituzio zentral horren parte diren estatu guztiek bete beharko dituzte espetxeratuengizatearen bermatzea ezinbestekoa delako. Urteetan zehar, kartzela sistemak hainbat aldaketa jasan izan ditu birgizarteratze eta rehabilitazio prozesuak hobetu eta perfektionatu nahian, baina luzea da oraindik egiteko gelditzen den lana.

Agerikoa da ezaugarri sozial, juridiko, ekonomiko eta geografikoen artean aurki dezakegun ezberdintasuna herrialde batetik bestera. Hortaz, ezin dira toki guztietan legediak modu unibertsal batean aplikatu, pisuzko arrazoiak direla medio. Horregatik beharrezkoa izango den lege multzo zentratek, programa ezberdinen aplikaziorako ager daitezkeen oztopoak arintzera bideratzea. Kasu honetan Nazio Batuek ezarritako gutxieneko legeak errespetatu beharko dituzte kartzela sistema ezberdinek.

Bestalde, arau zehatz hauek, erreflexio intelektualaren etengabeko eboluzio baten isla dira. Nelson Mandela arauak dira egun errespetatu beharreko gutxieneko arau horiek, eta giza eskubideen errespetuzko eremua asko lantzen dute. Praktika eta frogak ezberdinak onartzen dituzte kartzela barruan, gutxieneko eskubideekin bat badatozelako. Egia da batzuetan beharrezkoa izango dela salbuezpeneak salbuezpen, zenbait praktika ezberdin aplikatu behar izatea.

Kontuan hartu beharko da baita, aurretik azaldu bezala kartzelaren mugak kontuan hartzea. Herrialdearen arabera gaitasun ekonomikoak ezberdinak izango direlako eta behar materialak lortzeko aukerak ez direlako beti berdinak izango.



#### 1.4.1 NELSON MANDELA ARAUAK

Nelson Mandelaren gutxieneko arauak kontuan izanik, espetxeek badituzte errespetatu beharreko funtsezko arau batzuk. Araudi honetan agertzen den lehenengo araua errespetatzea oso garrantzitsua da, Giza Eskubideekin zuzeneko harremana duelako.

1. *“Todos los reclusos serán tratados con el respeto que merecen su dignidad y valor intrínsecos en cuanto seres humanos. Ningún recluso será sometido a tortura ni a otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes, contra los cuales se habrá de proteger a todos los reclusos, y no podrá invocarse ninguna circunstancia como justificación en contrario. Se velará en todo momento por la seguridad de los reclusos, el personal, los proveedores de servicios y los visitantes.” (1.artikulua)*

Aurrean dugun arau horren helburua pertsonen osotasun fisiko eta psikologikoaren babeserako prestatuta dago. Pertsonen duintasuna da oinarran artikulua horrek duen esanahia, eta beraz, presondegiko langile eta agente ezberdinek errespetatu beharreko garrantzi handiko ondasun bat izango da. Kartzelak baduelako presoarengan berme izaera bat, eta azken honen ondasunak zaintzeko erantzukizuna du.

Espetxeetan eman daitezkeen harreman interpersonalen noranzkoak, harreman handia izango du gutxieneko arauen errespetua ematen bada edo ez. Presondegiko langileek araudi hauek ezagutzea beharrezkoa izango da baina oso garrantzitsua da baita, presoek beren eskubideak ezagutzea, bai langileek beraiekiko izan dezaketen tratua aztertzeko eta presoan artean sortu daitezkeen liskarrak baretzeko.

Hurrengo legeetan baita, badira azaltzen diren funtsezko arau batzuk. Kasuan kasu, beharrezkoa izango diskriminazioaren aurkako legeak aplikatzea, jada kartzelak berak sor ditzakeen ezberdintasun sozioekonomiko horiez gain, marginazio kasuak ekiditeko. Kartzelaratze prozesuan eta presoak kartzelan ematen duen denbora, prozesu indibidualizatu bat izan behar da, baina ez diskriminatzailea.

Preso guztiek aukera berdintsuak izan behar dituzte, beren egoera hobetzeko aukera izan dezaten, hala nola, aurreko ataletan ikusi dugun bezala, lana egiteko eskubidea izatea, ikasketa titulu ezberdinak lortzeko aukera, hezkuntza sistema egonkor eta baliogarri bat, eta abar.

Kartzelaratuak egoera berezi bat baldin badute, posible izango da ustezko delitugile horrentzako neurri bereziak aplikatzea, baina hauek ez dira diskriminatzaileak kontsideratuko. Neurri hauen zantzua, indibidualizazio printzipioaren muina izango da, preso bakoitzaren ongizatea bermatzeko asmoz eta bere birgizarteratze prozesua bideratzeko.

Indibidualizazio sistemak, presoaren faktore pertsonalak kontuan hartzen ditu. Faktore horietatik abiatuta, kartzelan berarentzako egokitzen den programa bat aplikatzeko. Ezinbestekoa izango da printzipio hau ondo erabiltzea, espetxeratuaren birgizarteratze prozesua eraginkortasuna izateko.

Askatasun gabetzaileak diren neurri hauek, kartzelaratua bere ingurugiro sozioafektibotik aldentzen dute, eta latza izan daiteke pertsona askorentzako. Nelson Mandelaren Gutxieneko Araudiaren hirugarren funtsezko arauak dio, kanpo ingurunetik aldentzea eta justifikaziorik gabe presoari kanpoaldearekiko komunikazioa etetea ez dela zilegi izango. Diziiplina neurriak aplikagarriak izango dira salbuzpena bada, baina zentzurik gabeko pairamenak ekidin behar dira.

Espetxeen helburu nagusia gizartea delituingintzatik babestea izango da hiritarren ondasunak babesteko asmoz. Baina beharrezkoa izango da baita bigarren helburu bat finkatzea berrerortze tasaren aurka. Horretarako, ezinbestekoa izango da kartzela-zigorra aplikatzen den edozein prozesutan birgizarteratzeari garrantzia ematea. Espetxeratuari askatasunean bizitzeko eta legeearekiko errespetua izateko motibazioa eman behar zaio.

Birgizarteratze prozesua posible zan dadin, espetxe-administrazioak eta eskumena duten beste instituzio batzuek espetxeratuari aukerak eman behar dizkiote. Aukera horien artean aurretik azaldutakoak aipatzen dira, hala nola, heziketa profesionala, lana, beste sorospen neurri batzuk errehabilitaziorako helburua dutenak, moralarekin harremanduta.

Kirola eta sozialki harremantzeko aukerak eskaintzea ere ezinbestekoa da programa ezberdinen bitartez. Espetxeratuen beharretara egokitu beharko dira programa ezberdinak eta bakoitzarentzako egokienak aukeratu.

Nelson Mandelaren gutxieneko arauetan aipatzen den azkeneko funtsezko arauak eraikin eta instalazio ezberdinen inguruan dihardu. Espetxe administrazioak eraikinetako toki txukunak izan behar ditu alde batetik ezgaitasunak dituzten espetxeratuentzako egokitutako zerbitzuak eta bestalde, landu beharreko programa eta ekintza ezberdinak baldintza duinetan egiteko aukera. Aniztasun funtzionaleko pertsona horiek gainera, ekintza ezberdinetan parte hartzeko aukera izan behar dute, beraz, izango da hauek parte-hartzea sustatzea.

Nelson Mandelaren Gutxieneko Araudiaren oinarritzko printzipio horiek ikusita, esan genezake, espetxe administrazioak eskaini behar dituen baldintza horiekin, posible dela kartzela barruan bizikidetzaren egoki bat egotea. Askotan ordea, hasieran azaldu bezala, ezberdintasun ekonomiko, sozial eta geografikoek neurri hauen betearazpena oztopatzen dute.

Espetxeek neurri hauek bete nahi dituzten arren, ez dute posible izango duten espazio eta diru kopuruarekin eta hortaz, bizikidetzaren garapen positibo bat oso zaila izan daiteke. Presondegiko presoak eroso ez egotearen ondorioz eta hainbat bizikidetzaren gatazka sortu daitezkeelako.

#### 1.4.2 ESPAINIAR LEGEDIA

##### 1.4.2.1 ESPAINIAR KONSTITUZIOA

Espainiar estatuan, kartzeletan Nelson Mandelaren Gutxieneko arauak errespetatzeaz gain, baditu estatuak berak monopolizaturiko lege eta arau batzuk. Lege batzuk beste batzuek baino indar handiagoa dute, eta beraz, garrantzitsuenak aipatzea izango da atal honen helburua, aplikazioan posible diren edo ez aztertze gero. Herrialde guztietan bezala, kartzela-sistemak hainbat aldaketa jasan izan ditu, beren kartzela-prosezuak hobetzeko asmoz.

Espainiar Konstituzioa herrialdean dugun lege gorena da eta oinarrian errespetatu beharreko artikulua batzen ditu. Hasteko, Espainia Eskubidezko Estatu sozial eta demokratiko bat dela kontuan izan behar da. Lehenengo artikulua

esaten duen bezala, bere balore nagusia lege araugintza, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa izango dira.

Espainiar Estatuko hiritar guztiek oinarrizko eskubide eta betebeharrak izango dituzte. Eskubideen artean, duintasuna, dagozkion eskubide ukaezinak, nortasunaren hazkunde librea eta lege begirunea izango dira aipatzeko batzuk. Espetxeetan aurretik azaldu dugun bezala, ezinbestekoa izango da duintasuna errespetatzea eta birgizarteratzearekin lotuta, hazkundera izateko eskubidea, programa ezberdinen bitartez.

Orokorrean, herrialde guztian eta toki ezberdinetan Giza Eskubide Unibertsalak errespetatzea ezinbestekoa izango da. Horrez gain, Espainiarrak legearen aurrean berdintasuna izango dute, diskriminaziorik gabe.

Gaiarekin lotuta, Espainiar konstituzioan interes handiko artikulua bat 25. artikulua litzateke ondorengoa adierazten duelako:

*“25. artikulua*

*... 2. Askatasun baztertze zigorrek eta seguritate neurriek birheziketa eta gizartean bersartzera joko dute eta ez dira izango lan bortxatuak. Presondegira kondenatuak, hura betetzen ari baldin bada, kapitulu hontako oinarrizko eskubideez goza dezake, baina ez espreski huts kondenatorio arazoagatik, zigor zentzu eta presondegiko legeagatik mugaturik daudenak. Edonola ere, lan ordaindu batetara eskubidea izango du, eta baita giza asegurantzari dagozkion etekinetara ere, kultura sarbidera eta bere nortasun osoko hazkundera.”*

Ikerlan guztian zehar ikusi dugun legez, askatasun gabetzaileak diren zigorrek beti izango dute birheziketa eta birgizarteratzea helburu bezala. Honek zuzeneko lotura du nortasunaren hazkuntzan. Gainera artikuluan bertan azaltzen da presondegian sartzen den presoak oinarrizko eskubideetatik goza dezakeela.

Katzela prozesua baliogarria izateko, artikuluan azaltzen da eskubidea izan beharko duela lan-ordaindu batera sartzeko aukera, hezkuntzan barneratzeko eta ikasteko aukera, baita aisialdi eta kulturarekin harremana duten ekintzetan parte-hartzeko eskaintza.

Garai batean, kartzela-prozesuarentzako “zuzenketa” terminoa erabiltzen zen. Zuzenketa horrek zuzeneko lotura du desbideratzearen soziologiarekin, hain zuzen ere, normaltasunetik at dagoen legekontrako jarrera bat izan duen pertsonari zigor baten ondorioz “zuzendu” nahi zutelako. Gaur egun ordea termino hori ez da onartzen, espetxeratzean birgizarteratzea lortu nahi duelako eta ez zuzentzailea den neurri bat aplikatzea soilik.

Zigorrak bazuen beraz kutsu moralista bat eta estatu sozial eta demokratiko batean horrelakorik ezin da onartu, norberak era batera edo bestera interpretatzen duelako zer den morala eta zer ez. Beraz, kasuan, birgizarteratzea ere ez da derrigorrezkoa. Pertsona bati ezin zaio inposatu gizartean birgizarteratzera, beharbada gizarte horretan dauden printzipioekin bat ez datorrelako, eta gainera, konstituziokontrakoa litzateke, norberaren garapen askearen aurkakoa litzatekeelako.

#### 1.4.2.2 ELOO Espetxeen Lege Organikoa 1/1979

Espetxe sistemen egitura arautzeko, Espainia mailan lege Organikoak erabiltzen dira. Kasuan, 1979ko irailaren 26an onartutako lege organikoko atal batzuk aztertuko ditugu, birgizarteratze printzipioa errespetatzen dutenak, eta kartzelako bizikideta posible egiteko araututa daudenak.

1/1979 Lege organikoko hirugarren artikulua oso interesgarria da, espetxe-ekintzari buruzko betebeharrak batzuk azaltzen direlako. Kasuan, kartzelaratuaren giza pertsonalitatea errespetatu beharko da beti espetxearekin harremana duen edozein prosezutan. Giza eskubideak zigorraren aplikazioarekin batera errespetatu beharko dira. Gainera, diskriminazio zantzua duen edozein praktika debekatuta dago, hala nola, arraza, iritsi politiko, sinesmen erlijioso, egoera sozial edo beste ezaugarri batzuetan oinarritutakoa.

Ondorioz preso guztiek eskubide eta betebeharrak zibil, politiko, sozial eta ekonomikoak garatzeko aukera izango dute, sufragiorako eskubidea galdu gabe. Salbuzpenak egongo dira zigorrarekin alderaezinak baldin badira eskubide eta betebeharrak hauek.

Presoak Osasun Publikoaren zerbitzuetaz goza dezake kartzelara sartu baino lehen bezala eta bere ongizate fisiko eta mentala babesteko da beti.

Kartzelak beti eskaini beharko du beharrezkoa bada, presoarentzako osasun zerbitzua.

Hirugarren artikuluko laugarren atalean ondorengoa adierazten da baita: *“La Administración penitenciaria velará por la vida, integridad y salud de los internos.”* Artikulu honek aurretik azaldutakoarekin zuzeneko harremana du, eta oso garrantzitsua izango da, hain zuzen ere espetxe-administrazioak betebeharra duelako presoaren ongizatea bermatzeko.

Deshumanizazio prozesuak ekidingo dira. Presoari bere izenez deitu beharko zaio eta ez zenbaki baten bitartez. Espetxeratuari psikologikoki modu positibo batean eragin diezaioke, presondegiko preso zein langileek modu indibidual batean hitz egitea. Gizarte bat bezala funtzionatu behar du kartzelak, bere mugekin bada ere.

ELOO-ko 7. artikuluko betearazpeneko espetxeak hartuko ditugu kontuan, zeinetan presoak kondenatuak dauden eta zigorra betetzen ari diren. Kasu honetan, espetxe-zigor luzeak eta laburrak daude, baina guztiek presondegi berdinean pasatzen dute beraien espetxealdia.

Kartzelako bizikidetzak arriskuan jarri dezaketen edozein egoera kontrolatzeko beharrezkoak dira segurtasun- eta kontrol-neurriak. ELOOko 23. artikuluan azaltzen dira. Autoritateen baimenarekin eta susmoa baldin badago, posible da erregistroak eta gorputz-miaketak egitea. Espetxe-administrazioarekin barneratuak duen harreman bereziarekin lotuta, ez dute beharko kanpo agindurik hau egiteko.

Kasu hauetan pentsa genezake espetxeratuaren intimitatea urratu daitekeela eta norberaren garapen pertsonalean eragina izan dezakeela, baina kontuan hartu behar da baita, kartzelako beste preso guztien osotasun fisikoa eta psikologikoa babestu behar dela. Adibidez, jangelatik laban bat desagertu baldin bada, eta norbaiten logelan ezkutatuta dagoenaren susmoa baldin badago, miaketa guztiz justifikatua egon daiteke.

Miaketa hauek zerbitzu buruak baimendu behar ditu eta sexu bereko funtzionario batek egingo ditu. Intimitatea ahalik eta gehien babestuko da beti ere, arrazoia guztiz justifikatua izanik. Droga-kontsumoarekin harremantzen diren miaketetan medikuak egin beharko ditu plakak.

Indibidualizazio zientifikoaren bitartez antolatuko da kartzela-sistema espainiarra, eta horrela azaltzen du 72.1. artikulua. Gradu ezberdinak banatuko dira indibidualizazio sistemaren bitartez azkenekoa baldintzapeko askatasuna izanik.

Instalazioen ikuskerak beharrezkoa izango da, leku komunean segurtasuna bermatzeko eta bizikidetzaren antolatu eta baketsu bat egoteko. Baliozko objektuak ezin dira kartzelan sartu, hala nola, drogak, armak, balio ekonomiko handiko objektuak eta bestelako objektu batzuk. Kontuan izan behar dena da, beti kartzelako helburua birgizarteratzea izango dela eta ez barne-segurtasuna, baina beharrezkoa da birgizarteratze prozesu baliogarri bat posible izateko, kartzela egoera seguru batean egotea.

#### 1.4.2.3 Espetxe zaintzarako erreglamendua 190/1996

Espetxe Zaintzarako erreglamenduak ELOOak tratamendu eta programen atal praktikoa arautzen du, indibidualizazio printzipioa errespetatuz. Espetxe erreglamendu honen helburu nagusia kartzelan dauden presoak askatasuneko bizitza baterako prestatzea da, zigorraren betearazpenaren bitartez.

Espetxeratuari hainbat aukera eskaini beharko zaizkie, birgizarteratzeko programa bereziak aplikatuz. Indibidualizazio printzipioari jarraiki, beharrezkoa izango da espetxeratuaren atal ahulak aztertzea hauek gogortzeko eta berrerorketa tasa ekiditeko. Gainera, espetxealdia, sozializazio prozesu baten isla izan beharko da, beren ongizatea bermatzeko eta kartzelako bizikidetzaren egoki bat posible izateko.

Kartzela erregimenari buruzko araudiak, erregimen itxiko bi bizitza modalitate bereizten ditu. Alde batetik, zuzeneko kontrola behar duten eta oso arriskutsuak diren presoentzako departamentu espezialak egon behar dira, kartzelako bizikidetzara egokitu ezin daitezkeenentzako. Kasuan kasu, kontrol mekanismo bereziak ezarriko dira hemen. Bestalde, erregimen arrunta izango dugu, non gehienetan kartzelako populazio nagusia kokatzen den eta kartzelako neurriak betetzen dituzten.

Erreglamendu honen sarreran, Espainiar gizartearen aldaketak, espetxeetako egoeran ere aldaketa bat bultzatu duela azaltzen da. Gizartean eman den pentsamendu, ohitura eta usadien aldaketak araudi batzuen aldaketa ekarri du,

azken hauek permisiboagoak bihurtuz. Eragin handiena, presoek komunikabideen atalean izan du.

Espetxeen antolakuntzari dagokionez, espetxea antolakuntza propioa duen entitate arkitektonikoa, administratiboa eta funtzionala da, 10. artikuluan azaltzen den bezala. Betebeharreko baldintza orokor batzuk ditu, hala nola, unitate ezberdinak egotea, gizon emakumeak banantzeko, bizikidetza antolatua posible izateko beharrezkoak diren gelak eta zerbitzuak besteak beste. ELOOko 13. artikuluan azaltzen diren gutxienekoak izan behar ditu: hezkuntza gelak, jangela, liburutegia, pertsona bakarreko logelak, eta abar.

Printzipio zelularren ondorioz, gela bakoitzean preso bakarra egon beharko litzateke. Logela bakarra izateak baditu bi salbuezen. Barneratuak borodatez eskatu dezake gela banatu nahi duela. Hemen kontuan izan beharko da gaixotasun kutsakorrik badago edo ez, liskarrak sortzeko arriskurik dagoen edo ez.. Bizikidetza arriskuan jartzen duten elementuak badaude, ez da onartuko.

Administrazioak ostera, banakako plazak baino barneratu gehiago baldin baditu, gelak elkarbanatu beharko dituzte barneratuek. Logelek gainera biziiegokitasun eta erosotasun baldintzak bete behar dituzte.

Espetxe erregimenaren helburua elkarbizitza ordenatua eta baketsua lortzea da arau eta neurri multzo baten bitartez. Bi helburu nagusi ditu erregimenak, hala nola, atxikipena eta zaintza, presoek ihes egin ez dezaten eta espetxe tratamendua arrakastatsua izan dadin. Azken bi helburu hauek Espetxe Erreglamenduko 73. artikuluan biltzen dira.

Espetxe Erreglamenduko 110. artikulua birgizarteratze helburuak lortzeko ondorengo baldintzak aplikatuko ditu:

- a. Hezkuntzara eta formakuntzara bideratutako programak aplikatuko ditu, barneratuen gaitasun tekniko eta profesionalak asetzeko eta izan ditzaketen gabeziak gutxiagotzeko.
- b. Izaera prosozialeko programa eta teknikak aplikatuko dira. Espetxeratuaren karrera kriminala kontuan izanik, arrisku faktoreak gutxiagotzeko eta askatasunezko bizikidetza batean bizitzeko baliabideak eskainiko dizkie.



- c. Barneratuak kanpoaldearekin dituen harremanak sustatuko dira. Barneratuarentzako ingurugiro sozialean duen integrazioa mantentzea oso garrantzitsua izango da.

Aztertu beharreko espetxeak, erregimen arrunteko betearazpena dutenak izango dira, ELOOko 9. artikuluan oinarriturik, EEko 76-79. artikuluetan biltzen direnak. Zigorren betearazpena indibidualizazio sistemaren arabera aplikatu beharko da, hau da, birgizarteratzeko helburuarekin. Tratamendua arrakastatsua baldin bada, barneratuak espetxealdia igarotzen duenean, askatasunean bizitzeko gaitasuna eta motibazioa izango du.

Erregimen arruntean edo 2. graduan dauden barneratuak ordena eta disziplina mandatu beharko dute, bizikidetzan ordenatu eta baketsu bat posible izateko. Lana eta heziketa ezinbestekoak dira baina beti izango da aukerazkoa ekintza horietan parte-hartzea. Honi jarraiki, Zuzendaritza-kontseiluak zehaztuko du ordutegi bat jatordurako, lo hartzeko, bisitak jasotzeko, eta abar. Beharrezkoa izango da lo egiteko 8 orduak errespetatzea eta denbora libre izateko 2 ordu izatea.

Kartzela barruko ordena mantentzeko, salbuezpenezko egoeretan posible da neurri hertsagarrien aplikazioa baina soilik hiru supostutan dira onartuak "*numerus clausus*" esaten zaie. Barneratuak indarkeriazko portaerak dituztenean; norberaren, hirugarrenen edo gauzen aurkako kalteak sortzeko arriskua dagoenean, zigor disziplinario bat ezarriko zaio. Eta azkenik, espetxe langile batek agindu bat ematen duenean eta barneratuak kasu egiten ez duenean edo erresistentzia jartzen badu, posible izango da neurri hauen aplikazioa. Hau, ELOOko 45.1. artikuluan agertzen da.

Artikulu horri jarraiki, Espetxe Erreglamenduko 72.1. artikuluan, neurri hertsagarriak zehazten dira. Behin behineko isolamenduari dagokionez, espetxeratuaren normaltasun egoera lortzea bilatzen da. Indar fisiko pertsonalaren bitartez, barneratuaren osotasun fisikoa errespetatuz, hau kontrolatu daiteke. Batzuetan goma defentsak erabili daitezke, baita espraiak eta eskuburdinak espetxe-langileak beharrezko ikusten baldin badu.

Oso garrantzitsua izango da neurri hauen aplikazioan proportzionaltasuna errespetatzea, ezin daitekeelako gehiegikeriarik onartu. Espetxe-langileak ezingo du inola ere ez barneratua jipoitu.

Printzipio batzuk errespetatu behar dira neurri horiek aplikatzeko. Printzipioek muga batzuk zehazten dituzte, ezin daitezkeelako neurri guztiak barneratu guztientzako aplikatu, kasu bereziak daudelako, hala nola, gaixotasun larria pairatzen duten barneratuak eta haurdun edo erditu ondorengo sei hilabeteetan dauden emakumeak.

Aurretik azaldutako neurri eta lege guztiek, helburu bakarra dute, eta espetxeetan bizikidetzaren antolatu eta baketsu bat izatea da. Indibidualizazio sistema errespetatu nahi bada ordea, ez da posible barneratu guztientzako neurri berdinak aplikatzea eta beraz beharrezkoa izango da espetxe-langileek aktuzio margen bat izatea, kasu berezietan.

Oso garrantzitsua izango dira presondegietan dauden harreman interpersonalak egokiak izatea, hau da, barneratuen arteko eta espetxe-lagileekiko presoekin harremanak osasuntsuak izan behar dira. Gainera, espetxeratuei birgizarteratzeko programetan sartzeko aukera eman behar zaie, hezkuntza, lan-heziketa edo lan arloan aritzeko, baita kulturarekin eta kirolarekin harremanak duten ekintzak eskaini beharko zaizkie.

Ondorioz, barneratuen ongizate pertsonala eta kartzelako bizikidetzaren baketsua baldin bada, birgizarteratze helburua lortzea askoz ere errazagoa izango da. Presoek gainera espetxealdia baldintza erosoetan eta gizarteratzeko aukerak izango dituzte bertan.

Azpimarratzekoa da, presoaren eskubideen aurkako praktikak antzeman behar direla. Horretarako beharrezkoa litzateke ikerlanak egitea kartzela eremuetan, kartzelako egoera soziala zein den ikusteko, eta praktika ezberdinak bideratzeko. Presondegien helburua beraz, birgizarteratzea da eta horretarako, barne bizikidetzaren bat sustatu beharko da beti.

## 1.5 KARTZELAKO GATAZKAK

Araudiari buruzko aurreko atalean azaldu dugun bezala, kartzela erregulatzen duen araudi eta lege multzoaren helburu nagusia kartzelan bizikidetzaren antolatu eta baketsu bat lortzea baldin bada ere, baliteke bizikidetzaren hori arriskuan jartzen dituzten elementuak aurkitzea. Bizikidetzaren horren bitartez, birgizarteratzea lortzea errazagoa izango da eta emaitza baliogarriak emango dira gizartearen.

Harreman interpersonalen ondorioz sortzen diren gatazkak errealitate ukaezina dira. Pertsonak elkarrekin bizikidetzak bat partekatzen duten tokietan, gatazkek indarkeriazko egoerak sor ditzakete, elkarrekiko konfrontazioak sor daitezke, eta ondorioz instituzioen aldetik eratzun errepresibo bat. Gatazken ondorioz, pertsona edo instituzioek erabaki ezberdinak hartzen dituzte, hala nola, sahiestea, mendekua hartzen dute batzuk, arbitrajea, mediazioa edo adiskidetzea, eta abar.

Espetxeetan gatazkek presentzia handia izan dezakete egunerokotasunean, medio penitentsialarrietan eskubide murrizketa handiak ematen direlako. Espazio muga izatearen ondorioa izan daiteke alde batetik, bizitzeko eremua murrizten delako eta intimitate galera horrek egoerarekiko etsaitasunezko jarrerak garatzera bultzatzen direlako barneratuak. Bestalde, espetxeetako errekursoak nahikoa ez direnean, baliabideak lortzeko asmoz, espetxeratuak legekontrako jarrerak garatu ditzakete. Ondorioz, gatazkek presentzia handia dute espetxeetan.

Presondegietan bizikidetzak indarkeriazko ezaugarri anitz izaten ditu, hala nola barneratuen artean. Honi gehitu behar zaio barneratuek eta espetxe-langileek ere beraien artean egoera biolentoak bizi dituztela. Puntu honetan, esan beharra dago, bai espetxeratuak eta espetxe-langileak egoera hauetan agente parte-hartzaileak direla. Espetxea geografikoki toki oso mugatua den heinean, indarkeriazko gatazkak egunerokotasunaren parte direla ikusi da hainbat ikerketa lanetan.

Espetxea bezalako toki iragazgaitz batean errealitate bat da bizikidetzak hainbat oztopo aurkitzen dituela eta ez dela erraza oztopo eta arazo horiei aurre egitea. Gizarteko edozein tokitan gatazka zerbait arrunta bada, kartzelatan egoera hori hamar aldiz biderkatzen da. Egoera hutsal batek istilu handiak sor ditzake, tentsioa eta urduritasuna areagotuz. Gainera, kartzelan autokontrola galtzea erraza da, dauden eskubide muga guztien ondorioz.

Kartzelako egoera subkultura bezala identifikatu daiteke, ezaugarri bereizgarriak dituen gizarte bat delako azken finean. Subkultura honetan baliteke indarkeria bortitza agertzea zenbait delitu egin dituztenen aurka, hala nola, sexu-askatasunaren aurka egin dituztenen delitugileen kontra edo horrelako ekintzak espetxe-langileei salatzen dituztenen aurka. Azken horiek salatari bezala

identifikatzen dira eta kartzeletan marginazio egoera bat pairatzeko arriskua dute gerora.

Posible da baita, substantzia debekatuen kontsumoaren ondorioz gatazkak sortzea barneratuen artean, eta arazo honek bi arrisku nagusi ditu. Alde batetik barneratuen osasuna kontsumoaren ondorioz arriskuan egon daiteke eta bestalde, substantzia horien lorpenerako barneratuen arteko liskarrak sortu ditezke. Gainera, legekontrako jarrerak eman daitezke zilegi ez diren substantzia horiek lortzeko.

Desbideratzearen soziologiaren ikuspegitik aztertu den bezala, gizartean onartutako bizikidetzara motara ohitu ez diren horiek berriz bideratzeko asmoarekin kartzelaratzen ziren. Egun, jarrera horiek deliktibo gisa ulertzen dira eta horretarako beharrezkoa da espetxeratzen den pertsona batek karrera kriminal bat izatea. Karrera kriminala ikerketa kriminologiko askoren oinarri izan da, eta jokaera kriminala lantzeko puntu garrantzitsu bezala identifikatu da zientzia sozial honetan.

Karrera kriminalen paradigma, Blumstein, Cohen eta Farringtonen (1988) hitzetan, ez da delitugintzaren eredu teoriko bat soilik. Azken horien hitzetan, antolakuntza eta egitura zehatza duen sistema bat da. Ondorioz, posible da karrera kriminal indibidualen ikerketa egitea, faktore pertsonalak kontuan izanik. Ikuspegi hau izan da kriminologia zientifikoaren oinarrian dagoen ideia.

Autore askoren hitzetan, karrera kriminala denbora tarte batean indibiduo batek egiten dituen delituen sekuentzia da. Sekuentzi honetan hasiera eta amaiera bat finkatu daiteke maiz, baina beste askotan aldiz, karrera kriminala oraindik bukatu gabe egon daiteke. Hemen izango dugu azterlanarentzako gakoetako bat.

Espetxeratzen dituzten presoek baliteke beren karrera kriminala jada bukatua izatea edo ez, eta beren delitu sekuentzia horrek martzan jarraitzen badu, espetxe barruan gatazkak sor ditzake. Posible izango da ordea, delitugintzaren patroiak aztertzea eta ze joera deliktibo dagoen argitzea.

Egun, karrera deliktiboak xaflakorrak direla esan daiteke, eta ekintza ezberdinen ondorioz aldatu daitekeela. Birgizarteratzearen ideia, karrera kriminala aldatu daitekeenaren ideiatik eratorritzea posible dela da, programa eta ekintza ezberdinen ondorioz aldatu daitekeelako. Puntu honetan, eragin handia izango dute alegia arrisku faktoreek eta babes faktoreek.

Eboluzioan oinarrituriko ikuspuntu batetik eskema oso simple baten bitartez interpretatu daiteke karrera kriminala, hala nola, hasiera, garapen eta amaiera izanik hiru elementu nagusiak. Baina, gaia askoz ere sakonagoa da, edozein giza ekintzak badituelako hainbat elementu. Giza ekintzak faktore psikologiko, ekonomiko, sozial eta geografiko ezberdinak ditu, eta hortaz oso konplexua den aztergaia da.

Landa lan honen erdiguneko ikergaia, kartzelaratutako presoek karrera kriminalak jarraitzen duen edo ez aztertzea izango da, ondorioz espetxeko bizikidetzak antolatu eta baketsu batean arazoak sor ditzakeelako. Arazo horiek konpontzeko, beharrezkoa izango da karrera kriminal hori eraldatzeko erabiliko diren tresna eta baliabide ezberdinen aplikazioa.

Kasuan kasu, espetxean hainbat elementu ezberdin izango dira jarrera deliktiboak edo bizikidetzak kontrakoak eraldatzeko. Kartzela, presoak, espetxe-langileak, espetxe administrazioa, kanpo eragileak, eta beste hainbat elementu hartu beharko dira kontuan.

Kartzela elementu arkitektoniko bat dela esan genezake, eta espazio mugak zehazten ditu. Ereku geografiko bat den heinean, posible izango da kartzelan sor daitezkeen gatazka ezberdinak hot-spots mapa ezberdinekin detektatzea. Mapa hauen bitartez posible izango da kartzena dauden eremu ezberdinetan sortzen diren gatazkak aztertzea eta ondorioz hauek bideratzeko teknika ezberdinak aplikatzea. Informazio horrekin, posible da zaingoa areagotzea baliabide eta errekurtsio ezberdinekin.

Oso garrantzitsua izango da baita, presoek egoera psikosozialak kontuan hartzea. Barneratuek beraien artean harreman interpersonalak izango dituzte eta beraz, beharrezkoa izano da arrisku faktore indibidualak kontuan hartzea.

Kartzela egitura bezala kontuan hartzen badugu ordea, inguruneko arrisku faktoreak hartu behar dira kontuan. Delitugile bakoitzak programa eta ekintza ezberdinen aurrean duen jarrera kontuan izanik, posible izango da barneratuentzako egokitzen diren birgizarteratze eta errehabilitazio programak aplikatzea.

Espetxe-langileek duten jarrerak eragin handia izango du kartzelan lortu nahi den bizikidetzan. Beharrezkoa da langile hauek egoera ezberdinen aurrean

jokatzeko prestatuak egotea. Horretarako beharrezkoa litzateke harreman osasuntsuak mantentzea, baina autoritate eta kontrol jarrera galdu gabe. Oso zaila da oreka hau lortzea baina beharrezko baliabideen bitartez posible litzateke.

Espetxe eragile bezala, langile funtzionarioek izango duten prestakuntza maila garrantzizkoa bada ere, beraien motibazioa ezinbestekoa izango da. Gizarteko lanpostu oso garrantzitsu bat da. Kartzelan lan egitea erronka bat da, eta motibazio falta badago, edo etsaitasun jarrerak agertzen badira, birgizarteratze prozesua mugatuta egongo da.

Presondegiko antolakuntza kontuan hartzekoa da sor daitezkeen gatazken aurrean. Neurri oso zorrotzak dauden tokietan baliteke zuzentasuna mantentzea baina posible da birgizarteratzeko prozesua oztopatzea, ez zaielako askatasunean bizitzera prestatzen eta berrerortzeko arrisku hadia izango dutelako. Ostera, neurri oso malguak baldin badaude, posible da birgizarteratze prozesurik ez ematea. Azken horren adibide izan daitezke Egoameriketako kartzelen adibidea, non ez dagoen neurririk espetxeetan.

#### 1.5.1 KARTZELA ETA HOT-SPOTS

Delinkuentziak elementu geografiko oso garrantzizua du gizartean. Kartzela eremu geografiko gisa interpretatzen baldin badugu ondorioztatu genezake gizarte mugatu bat den heinean, gatazka edo kartzela barneko delituek ere patroiz geografiko bat izan dezaketela. Ideia hau ingurumenaren kriminologiatik eratorritako ikerketen ondorio zuzena da. Delitugintzak espazioaren antolamenduarekin harreman handia du.

Hot-spots mapak, gizartean eremu konkretuetan finkatzen ditu delituak. Hirietan, badira toki batzuk delituekin harreman handiagoa dutenak, eta mapa hauen bitartez, toki hauek detektatzen dira, ondoren aurrezaintza neurriak aplikatzeko.

Ingurumenaren kriminologiaren ikuspegitik, legezkontrako ekintzek bizitza urbanoarekin zerikusi handia dutela ondorioztatu da. Kontuan hartu behar da delitugilea ze espazio urbanotan bizi den. Tokiaren arabera, leku batean edo bestean egingo duelako bere ekintza kriminala.

Kartzelako bizikidetzaren gaiari jarraiki, esan genezake, barneratu hauek badutela baldintza bereziak dituzten bizilekuak. Kontuan izan behar dugu, delitugile askok ez dutela patologiarik eta delitugintzara bideratzen direla ingurugiro sozial, ekonomiko eta geografikoaren ondorioz. Testuinguru urbanoak beraz, eragin handia izango du delitugileengan, eta kasuan kasu, barneratuengan.

Esan genezake, kartzelak kanpo gizartearekin alderatzen baditugu, gatazkak leku konkretu batean edo batzuetan gertatuko direla.

Egunerokotasunaren parte dira legezkontrako jarduerak edo delituak. Felsonen arabera, badira delitugintzarako maila ezberdinak. Nibel mikro batean, arau-hausleak espazio eta denbora tarte batean topo egiten du biktimarekin. Gainera, biktima horren zaintzarako pertsonarik gabe. Kartzelan ere egunerokotasunean hainbat ekintza ematen dira, toki eta espazio ezberdinetan, beraz, batzuetan gatazkak sortzeko aukera egongo da.

Espetxeetan, komunetan esate baterako ez da zaindaririk egongo kartzelaratuaren indimitatea errespetatu nahian, baina baliteke toki horietan biktima eta erasotzaile batek topo egitea.

Ingurumeneko kriminologiaren ikuspegitik, kriminalitatearen hirukia zehaztu zen. Hiruki honek zehatuta ditu elementu batzuk: delitugilea, biktima edo kaltea pairatuko duen objektua, toki konkretu bat eta denbora tarte bat.

Kriminalitatearen hirukiaren teoria kriminologiako hainbat ikerketa eremutan aplikatu da, ziberkriminalogian esate baterako. Lan honetan ordea, kartzelan egin daitezkeen ikerketa kriminologiko batean aplikatuko dugu eta oso baliogarria izango da espetxeetan eman daitezkeen gatazka edo delituak saihezteko edo behintzat gutxiagotzeko.

Hiruki honen teoriak dio, beharrezkoak direla elementu batzuk aurretik azaldu bezala. Espetxea aztertzen ari garen atal honetan garrantzitsua izango da espetxea bera ikertzea, kriminalitatearen hirukiak espazio-toki bezala zehazten duen tokia.

Kontuan hartu behar dira hainbat faktore, hala nola, toki konkretu horrek eskaintzen dituen erraztasunak, lekuak berak duen agerikotasuna, ahultasuna edo erakargarritasuna, harrapatua izateko aukera, lekukoak dauden edo ez, eta alde egiteko erraztasuna. Presondegietan toki hauek oso mugatuak izango dira, baina

existitu daitezke. Adibidez, kartzelan intimitatea babesteko asmoz, toki askotan ez da kamararik egongo eta beraz, harrapatua izateko aukerak gutxitu egingo dira.

Sexu-askatasunaren aurkako delituetan, komunak izaten dira toki krimipetoenak (Vozmediano eta San Juan, 2010), hau da, delitu gehien ematen diren tokia eta hortaz, toki gatazkatsuak. Toki krimifugoak izango dira ostera, delitu gutxien dauden espazioak.

Inguruneko kriminologia oso aplikagarria da espetxeetan gatazkei aurre egiteko. Gatazkak detektatzeko programak erabili daitezke, hirietan egiten den bezala. Horretarako programa bereziak erabiltzen dira SIG (*Sistemas de Información Geográfica*) izenekoak. Datu base batzuk dira non, gatazkak gertatu diren toki horiek adierazten diren, eta horren ondorioz ikerketa eta jarraipen bat egiteko aukera dago. Posible izango da sistema hau ere kartzelan aplikatzea, baina zailtasun handiak egongo dira, barneratuen artean ez direlako salaketak ematen, beldurraren ondorioz.

Jarraiki, hotspots delako mapak ere oso baliogarriak izan dira delikuentziaren tratamendurako, ikusi daitekeelako delituak nolako bilakaera duen espazio-denbora tarte ezberdinetan. Kartografiaren bitartez teknika hau oso erabilia izan da herrialde ezberdinetan poliziaren eskutik eta baliteke, momentu batean edo beste kartzelan aplikazio hau posible izatea sor daitezkeen gatazka eta delitu arazoei aurre egiteko.

Kartzelako espazioa kontuan izanik, beharrezkoa izango da gatazkak ekiditeko ikerketa geografiko bat egitea, hot-spots ezberdinen erabilerarekin bat. Posible izango da delituak eta gatazkak non ematen diren ikustea eta ondorioz esku-hartze plan egokitu bat aplikatzea edozein kasutan.

Praktikan arazo asko sortu daitezke praktika honen aplikazioan, baina barneratuaren segurtasunaren bermerako oso eraginkorra izan daiteke.

### 1.5.2 KARTZELAKO BIZIKIDETZA ANTOLAMENDUA

Aurreko ataleta ikusi dugun bezala, espetxeetan bada bizikidetza antolatzeko joera bat. Horretarako, ordutegiak aplikatzen dituzte ekintza ezberdinetarako eta baita toki geografikoetan mugatzen dituzte ekintza horiek.



Urteetan zehar kartzelako antolamendua aldatuz joan da eta horren adibide da izan dituzten aldaketa soziokulturalak.

Aurretik zeuden kartzela ereduak pairatu zituzten kritikak, Ongizate Estatuaren garapenaren ondorio izan ziren, eta orduan hasi ziren birgizarteratzearen aldeko iritziak azaltzen. Egun kartzelan aplikatzen diren politikak eguneratuagoak dira eta gaur egungo gizartearekin bat datoz ustez. Kartzelan beharrezkoa da barneratuari askatasunean bizitzera erakusten dion programa berezi bat aplikatzea ikuspuntu honetatik.

Kontuan hartzeko gako garrantzitsu bat kartzelan agente ezberdinen arteko subkultura ematen dela da. Kontrolatzeko eta bizikidetzat egoki bat emateko, beharrezkoa izango dira praktika ezberdinen aplikazioak. Presondegiko egunerokotasunak eskubide askatasunen murrizketa garrantzitsu bat dakar eta ez da batere erraza eskubide muga horiekin lasai bizitzea. Espetxe-langileek lan handia egin beharko dute eta errespetuzko kontestu batean sozializazioa posible egin beharko dute.

Egun, birheziketa eta birgizarteratze soziala marko penitentziarioan oso barneratuak dauden bi kontzeptu garrantzitsu dira. Hain dira garrantzitsu ze, barneratuari kulturara hurbiltzeko baliabideak eskaintzen zaizkio, lan mundura sartzeko aukerak zabaltzen dizkiete. Gainera, kartzelaratuak, bere ingurugiro sozialean izan dituen faktore kriminogenoetatik aldenduko da, ikuspegi positibo batetik. Azken horren adibide izan daiteke substantzia ezberdinen kontsumoa ekiditea, kartzelan onartzen ez direlako hain zuzen ere.

Kartzelako esku-hartzeak barneratuari askatasunean bizitzeko baliabideak eskaini nahi dizkio espetxealdia igarotzen duen bitartean. Gainera, espetxean izango duen bizikidetzat antolatua eta baketsua bada, presoak motibazioak izango ditu etorkizunean bere bizitzako helburu pertsonalak lortzeko. Norbanakoaren hazkuntza pertsonala bideratuko da.

Aurretik esandakoaren harira, kartzeletan preso guztientzako ez daude aukera berdinak, hainbat arrazoi ekonomiko, politiko eta geografikoren ondorioz. Beraz, gizarte arruntetan bezala, sailkapenak egongo dira barneratu batzuen eta beste batzuen artean. Azken egoera honek ere gatazkak sor ditzake barneratuen artean.

Kartzela subkultura bezala izandatu dugu lehen eta oso garrantzitsua da azpimarratzea, kultura guztietan bezala, estatus ezberdinak egongo direla. Espetxeetan dauden aukeretan oinarrituko dira ezberdintasunak, besteak beste. Kirola egiten duen edo egin ezin duenaren artean ezberdintasunak egongo dira, edo lana lortzeko aukera duenaren eta ez duenaren artean, eta abar.

Gizartean egon daitezkeen egoera ezberdin horiek modu paralelo batean presondegietakako egoerekin alderatu genitzake. Taldeak sortuko dira kartzelan, eta areriotasuna sor daiteke. Baliteke presoen egoera ezberdinek horretan asko eragitea. Gainera, gatazken aurrean espetxe-langileek nola erreakzionatzen edo esku-hartzen duten ikertzea oso garrantzitsua izango da.

Egunerokotasunean espetxeetan ezarritako araudiak betetzen ez dituztenek, zigorrak jasango dituzte. Zigorren aplikazio horrek tentsio bat sortzen du beste presoen artean. Beldurra izan daiteke presoek sentitzen dutena, neurri-hertsagarri batzuekiko, eta beraz, ez dute inola ere askatasunean bizitzen ikasiko.

Gaur egun, kartzela askotan ez dago espaziorik barneratuek programa guztietan parte-hartzeko eta beraz, beren aukerak murriztu egiten dira. Barneratuek motibazioz ez badute askatasunean motibazioz bizitzeko, kartzelan izango duten jarrera ezkorra izango da. Lan mundura sartzeko aukerak murrizten baldin bazaizkie esaterako, posible da kartzelan bertan beren karrera kriminalak aurrera jarraitzea eta presoen arteko liskarrak sortzea.

Herrialde ezberdinek kasu honetan kartzela sistemetan baliabide gehiago inbertitu beharko lukete, hain zuzen ere, kartzelan barneratuek bizikidetzaren egoki bat badute, posible izango delako berrerortze tasak gutxiagotzea. Hortaz, ekonomikoki herrialdearentzako onuragarria izango da, baita presoarentzako.

Ondorioz, egoera hau gizarteraekin alderatzen badugu, antzekotasunak aurki ditzakegu. Aukera gehien dituzten hiritarrek normalen ez dute delitugintzan parte hartzen eta kartzelan berdina gertatzen da, baliabide gutxi dituztenek baliabideak zilegi ez diren bideetatik lortuko dituzte.

Gatazkak normalean komunikazio arazoan ondorioz sortu daitezke. Arazoaren partaide diren horiek komunikatzeko zailtasunak izan ditzakete eta gainera, espetxe barruan normala da sesgoz betetako pertzepzioak sortzea. Gatazkako alderdi ezberdinek gatazka modu batean edo beste ulertu dezakete

arazoaren gakoa. Beharrezkoa litzateke komunikazio egoki baterako zantzuak erraztea barnartuei, hezkuntza programen bitartez.

Touzardek ondorengoa dio gatazken inguruan:

*«el conflicto se interpretaría como una situación en que unos actores, o bien persiguen metas diferentes, defienden valores contradictorios, tienen intereses opuestos o distintos, o bien persiguen simultáneamente o competitivamente la misma meta». (Touzard, 1980).*

Uler genezake beraz, helburu pertsonal horiek lortzeko zailtasunak agertzen badira, norberaren beharrak betetzeko helburuarekin, gatazka interpersonalak sortu daitezkeela. Hortaz, beharrezkoa litzateke komunikazio egoki bat egoteko baliabideak eskuratzeko aukera egotea espetxeetan, mediazio programen bitartez esaterako eta ez neurri hertsagarriak aplikatuz.

### 1.5.3 BARNERATUEN FAKTORE PERTSONALAK

Espetxe-sistema ezberdinetan eragin handia dute gatazkek. Gatazketan oso garrantzitsua izango da faktore pertsonalak kontuan hartzea, ingurumeneko faktoreak kontuan hartzen diren bezala.

Ikurpegi judizialak gizartean moldatzen ez direnak eta jarrera desbideratuak dituztenak delitugiletzat hartzen dira. Barneratzea da jarrera hauen aurrean hartzen den erantzun nagusia eta gehien erabiltzen dena praktikan. Kasu honetan, delitugileari behartu egiten zaio gizartetik at dagoen beste eremu murriztuago batera egokitzera.

Barneratu bakoitzak egoera honen aurrean erantzun bat edo beste garatuko du, arrisku faktore pertsonalen eraginez hein handi batean. Eta erantzun horiek, denboraren poderioz indartu eta sendotu egingo dira, beste egoera batzuetara egokitzeke zailtasunak sortuz etorkizunerako askatasunezko bizikidetzara batean.

Indibidua kontuan izanik, ezin da baieztatu pertsonalitatearen ezaugarriak zihurtatu dezaketela pertsona bat delitugintzan sartuko den edo ez. Faktore pertsonalak ez dira soilik kontuan hartu beharreko baldintzak, baina atal honetan horiek harremanduko ditugu kartzeletan gertatu daitezkeen gatazka edo egoera

deliktiboekin. Arrisku faktore pertsonalei gehitu behar zaie, kartzela eremuan daudela, aurretik azaldu dugun bezala.

Delitugileen ezaugarri psikologikoetan hainbat ezaugarri komun aurkitu dira, hala nola, hormona jarioaren disfuntzioa, alterazio neurologikoak, arreta murriztua, harreman interpersoneletarako gaitasun gabeziak eta drogamenpekotasuna. Espetxean, estimulu askoren galeraren ondorioz, baliteke arrisku faktore hauen handitzea ematea.

Egun, ezin daiteke esan beraz delitugile izaera duten indibioengan faktore pertsonalek eraginik ez dutela. Ezaugarri edo arrisku faktore pertsonal hauek behar bezala tratatzen ez badira kartzelan programa eta ekintza ezberdinen bitartez, hemen ere, birgizarteratze prozesuarentzako hainbat oztopo agertuko dira.

Espetxetik kanpo joera antisozial bat izan duten pertsonak, baliteke kartzelako gizarte antolakuntzara ez moldatzea. Kasu honetan beraz, jarrera desbideratuak aurkituko ditugu kartzela barruan eta bizikidetzan arazoak sortu daitezke.

Andrews eta Bontak 4 arrisku faktore nagusi bereizten zituzten jokaera deliktiboak azaltzeko. Horietatik hiru garrantzitsu aipatuko ditugu, arrisku faktore pertsonalekin harreman handia dutenak:

1. Kognizio antisozialak lirateke arrisku faktoreetariko lehenengo ezaugarriak, hala nola, jarrera, sinesmen, balore eta arrazoitzeko joerak barnebilduko lituzke. Baliteke ezaugarri hauek patroia deliktibo baten baitan egotea, eta legezkontrako joerak bultzatzea. Atal honetan sartzen dira baita kognizio eta emozio-aldarteak, haserrea, eta sistema penalarrekiko gorrotoa.
2. Jarrera antisozialaren ibilbide indibiduala kontuan hartzen den beste arrisku faktore bat da. Normalean hasiera goiztiarra izaten dute, luzaroan jarraipen bat, eta egoera antisozial ezberdinetan garatzen dira.
3. Azkenik, izaera antisozialeko patroiak ditugu, non, aspektu psikologikoenak aurkituko genituzke. Trastorno ezberdinak aurki ditzakegu atal honetan, Izaera Antisozialeko Pertsonalitatea, autokontrol eza dituzten trastornoak, eta inpulsibitatea, enpatia falta, etsaitasuna, sentrazio arriskutsuen bilaketa eta beste zenbait ezaugarri barnebiltzen dituzten izaerak.

Elementu hauek kontuan hartuta, beharrezkoa izango da pertsona bakoitzarentzat indibidualizazio sistema aplikatzea eta barneratu bakoitzari bere beharretara egokituta dauden tratamenduak eskaintzea. Prozesu horren ondorioz, baliogarria bada, pertsona horrek gaitasun berriak ikasiko ditu askatasunean bizitzeko. Horretarako beharrezkoa izango da lehenengo aspektu pertsonalak kontuan hartzea.

Kartzelan beraz, tentsioa areagotzen dituzten egoerak ekidin behar dira. Izaera inpultsiboa duen pertsona batek urduritasunezko egoeren aurrean indarkeriazko jarrera batekin erantzun dezakeelako eta beraz, legezkontrako portaera bat aurrera eramanez. Egoera horiek ekiditeko, beharrezkoa da bizikidetzan antolatu eta baketsu bat posible izateko baliabideak izatea kartzela barruan, bai espetxe-langileek eta inguruan egon litezken beste barneratu batzuek.

#### 1.5.3.1 IZAERA ANITZEKO DELITUGINTZA

Faktore pertsonalak kontuan hartzen baditugu, Jokabidezko transtornoak kartzelan presentzia handia duela esan genezake. Kasu hauetan patrioiak errepikakorrak eta etengabekoak izaten dira. Gainera, ezaugarri nagusien artean, ingurukoan eskubideak urratzen dituela esan genezake. Gizarteko legeen aurka ere jokatzeko dute, adinaren arabera. DSM-Vak, 13 ezaugarri nagusi planteatzen ditu, eta karrera deliktiboekin harreman du genitzake.

Trastorno hau pairatzen duen pertsona bat kartzelan sartzen badugu, beharrezkoa izango da esku-hartze psikosozial bat aplikatzea. Horretarako beharrezkoa izango da pertsona horren karrera deliktiboa ezagutzea eta diagnostiko zuzen bat egitea.

Pertsona honek kartzelan izango duen birgizarteratze prozesua baliogarria izateko, tresna bereziak aplikatu beharko dira. Programa edo esku-hartze zuzenak aplikatu ezean, kartzelako bizikidetzan eragin handia izan dezakete beren jarrerak, ondoan dituen agenteekin harreman zuzenarekin.

Aurretik esandako 13 ezaugarri horiek ondorengoak dira:

1. Ondokoak mehatxatzea, indikidatzea edo akosatzea.
2. Liskarretan parte-hartze esanguratsu bat izatea.

3. Ingurukoak mintzeko tresna arriskutsuen erabilera, hala nola, labana, botila apurtu bat, bastoiak edo bestelakoak erabiltzea.
4. Ingurukoengan indarkeria fisikoa erabiltzea.
5. Animaliangan indarkeria fisikoa erabiltzea.
6. Biktimarekin liskarra izanik lapurtzea.
7. Beste pertsona bat bortxatu izana.
8. Zerbaiti su ematea eta kalte handiak sortu izana.
9. Beste baten patrimonioa bortizkeriaz apurtu du.
10. Norbaiten etxebizitza, eraikin edo autoa hartu du.
11. Maiz gezurretan ari da bere helburu pertsonalak lortzeko asmoarekin.
12. Beste norbaiten objektuak ebatsi ditu.
13. Bere adineko neurrien aurkako jokaerak ditu.

Kasu honetan, aurreko ezaugarriak kontuan hartzen baditugu, esan genezake karrera deliktiboan izaera askotariko legekontrako jarrerak izan dituen pertsona bati egin dakioke hurbilpena. Espetxe establezimenduetan horrelako pertsonak, ingurukoengan izan dezaketen eragina negatiboa izan daiteke.

Presoa espetxeratzen den momentuan beraz, neurri zehatzak erabili beharko dira egoera bortizak ekiditeko, eta beren espetxe tratamendurako beharrezkoak diren baliabideak erabili behar dira.

Kartzelan aurretik azaldutako egoera ezberdintasunen ondorioz, pertsona hauek ingurukoengan bere helburuak lortzeko zilegi ez diren bideak erabiltzeko aukera handiagoa dute, hala nola, ingurukoengan mehatxuak erabiltzea, indarkeriazko jarrerak bideratzea eta ondorioz, barneratuengan ezegonkortasunezko egoerak eman daitezke, urduritasuna, beldurtasuna eta beste zenbait sentipen negatiboren ondorioz.

Birgizarteratze prozesu egoki bat izango da kasu honetan beste zenbait faktoreren inguruan eragingo diotenak barneratuari. Beraz beharrezkoa izango da trastorno hau pairatzen duten pertsona hauentzako tratamenduak ondo egokitzea

eta dauden espetxe-langileak egoera bortitzen aurrean parte hartzeko gaitasuna izatea.

### 1.5.3.2 AUTOLESIOAK

Norberaren ongizatearen aurka, autolesiorako joerak ere aurki ditzakegu kartzeletan. Gizakiak, bere bizitzan zehar egoera asoren aurrean indarkeriazko joeren bitartez erreakzionatu du, helburu ezberdinak lortzeko asmoz. Arrisku egoeretan, indarkeriak badu presentzia garrantzitsuago bat. Baina norbere buruaren aurkako lesioak zehaztea ez da batere erraza.

Espetxeetan gehien ematen diren autolesio joerak ebakiak, erretzeak eta urratzeak izaten dira ((Liebling y Krarup, 1993). Hainbat ikerketetan ikusi da, normalean autolesioak errepikakor bihurtzen diren joerak izaten direla. Gainera, egoera honek kartzeletan tentsio handia sortzen du bai espetxe-langileengan eta barneratuengan ere.

Laligak 1991. urtean egindako kerketa baten ondorengo jaso zer ikerlanaren emaitzetan:

- 73 jokaera autolesibo urte batean 46 subjektoren eskutik.
- 46 subjektu horietatik 30 behin autolesionatu ziren, 9 subjektu bi aldiz, 3 subjektu hiru aldiz eta 4 subjektu lau aldiz autolesionatu ziren.
- Zaurien %64.4 besoetan izan ziren, %11 sabelean, %8.2 objektu arraro baten ahorakinaren ondorioz eta %8.2 urkamenduak.
- Autolesioak eragin ziren 46 subjektuetatik, %84,7ak drogak kontsumitzen zituen.

Autolesioen joerak denboran aldatu daitezke arrazoi eta faktore sozial zein kulturalen ondorioz. DSM-IVan autolesioen ezaugarria pertsonalitate limitearen trastornoarekin harremantzen da. Autolesioek beraz diagnostiko zehatz batzuekin lotura dutela esan genezake. Ondoren profesional ezberdinek egindako ikerketak aztertuko dira.

#### 1.5.3.2.1 Autolesioak eta Pertsonalitate limitetako trastornoa

Pertsonalitate mugatuko trastornoarekin harremantzen den autolesio nagusia automutilazioa eta suizidiorako joerak dira. Hainbat ikerketa egin dira autolesioak eta trastorno ezberdinak harremantzeko.

- Herpetz, Sass eta Favazzak 1997. urtean egindako ikerketa batean ondorengo ikusi zuten: Autolesioak zituztenen %48ak trastorno limitearen ezaugarriak pairatzen zituztela baina kriterioak aplikatu ostean tasa hori %28ra jaisten zela.
- Rusck, Guastello eta Mansonek 1992. urtean 82 pazienterekin egindako ikerketa batetik ondorioztatu zuten autolesioak trastorno limitearen sintoma oso esanguratsu bat dela. Ezegonkortasuna, harreman egongaitzak, arrazoirik gabeko haserrea, ezegonkortasun emozionala eta beste hainbat ezaugarri aurkitu zituzten.
- Hill, Rogers eta Bickek 1996. urtean, autolesio edo indarkeriazko jokaerak aurreikusi zitezkeen ikertu zuten espetxeetako unitate psikiatrikoetan. Soilik indarkeriazko jarrerak eta neurri terapeutikoen betearazpena ez egitea aurreikusi zitekeela ondorioztatu zuten.

Espetxeetan beraz, psikologo eta prikiatren presentzia beharrezkoa dela ikusi da, hain zuzen ere, kasu askotan, balitekeelako trastorno ezberdinetara lotuta dauden sintomak agertzea eta behar bezalako tratamendua behar izatea.

#### 1.5.3.2.2 Autolesioak eta Egoera Animikoaren trastornoa

*“Las autolesiones son utilizadas a menudo como mecanismos de regulación de la tensión experimentada en situaciones estresantes.”*(Roca Tutusaus, X., Guárdia Olmos, J., Jarne Esparcia, A., 2012) Oso garrantzitsua da kasu hauetan beraz karteletan tentsio egoerak ekiditea eta egoera baketsuak sustatzea. Oso garrantzitsua izango da pazienteak eskaintzen duen informazioa aztertzea, baina baita ingurukoek eta familiakoek eman dezakene informazioa aztertu behar da.

- 2003. urtean Klonskik egindako ikerketa batean, autolesiak antsietate eta depresio egoerekin harremandu zuten.



- Haw, Houston, Townsend, eta Hawtonek, 2002. urtean, depresioa autolesiozko jokaerekin bat agertzea oso ohikoa zela azpimarratu zuen. Gainera autolesio joera handiena suizidioarekin harremantzen zen.
- Esan beharra dago beste autore batzuen hitzetan ez dela horrelao ondoriorik atera eta autolesioak ez duela hainbesteko korrelazioa autolesioekin.

#### 1.5.3.2.3 Autolesioak eta elikadura trastornoak

Elikadura trastornoekin badira autolesioak harremantzen dituzten zenbait ikerketa. Ohikoa izan daiteke horrelako trastornoetan norberaren tentsioa eta egonezina baretzeko erabiltzen diren teknikak direla.

Bulimiarekin harreman du genitzake lesioak, baina gizonezkoetan ez da oso ohikoa izaten horrelako trastornorik egotea eta beraz ez da arazo larria izango espetxeetan. Ruedak e1997 eta 2005. urtean egindako ikerketa batean 400 gizonezko lagin batetik 21 kasuk agertu zuten trastorno hau, eta beraz ez dugu ikerketa honetan kontuan hartuko.

#### 1.5.3.2.4 Autolesioak eta Inpultsoan Kontrolen Trastornoa

DSM IVan, kriterio zehatz batzuk erabiltzen ditu eta autolesioa den ezaugarri hau oso ohikoa da Inpultsoen Kontrolaren trastornoarekin harremantzea. Inpultsibitateak droga kontsumoarekin harreman handia duela esan genezake, baina egun, droga kontsumoa behintzat EAeko kartzeletan gutxiagotu dela pentsa genezake, espetxe-sistema egoera asko aldatu delako azken urteetan.

Indarkeriazko joerak, inpultsibitateak eta droga kontsumoak sistema opioidearen alterazio baten ondorio izan daitekeela ondorioztatu dute autore askok, eta horrela ikus daiteke baita medikuak pazienteei ematen dizkieten opiasekoek (naltrexona) bezala, jarrera kontrola areagotzen duela (Rosen eta Heard, 1995).

#### 1.5.4 ESPETXE TRATAMENDUA

Aurretik ikertutako guztia kontuan izanik, gizarteraentzako espetxe-sistema eremua ezezaguna dela esan genezake eta ez dela ezagutzen barneratuek eta espetxe-langileek egiten duten esfortzu guztia. Komunikabideetan ez da gai hauei buruz hitz egiten eta kontuan izan behar da gizarte batean iritzi publikoa zenbateko eragina izan dezaken instituzio publikoengan.

Aztertutako gatazkaren faktore ezberdinak errealitatearen oztopo bat badira ere, kartzelaratzearen helburua birheziketa eta birgizarteratzea izango da, kartzela barruan bizikidetzara antolatu eta baketsu baten bidez. Horretarako kartzelan tratamendu eta prozedura ezberdinak daude. Kartzelako tratamendua 1978. urtean Alarcón Bravok honela definitu zuen:

*... "una ayuda, basada en las ciencias de la conducta, voluntariamente aceptada por el interno, para que, en el futuro pueda elegir o conducirse con mayor libertad; o sea, para que pueda superar una serie de condicionamientos individuales o sociales, de cierta entidad, que hayan podido provocar o facilitar su delincuencia". (Alarcón Bravo, J., 1978)*

Alarconek esaten duen bezala, birgizarteratze programek barneratuari askatasunean bizitzera erakutsiko diote, arrisku faktore ezberdinak atzean utziz, gizarteko bizikidetzara egokituz. Horretarako beharrezkoa izango da espetxea egitura arkitektoniko gisa egokia izatea, kartzelako bizikidetzara antolamendua zuzena eta baketsua izatea eta faktore pertsonalak kontuan izatea esku-hartze ezberdinak aplikatzeko.

Espetxe-erreglamenduko Lege Organiko Orokorrak tratamendua birgizarteratzerara eta birheziketara bideratuta dauden ekintza multzoa da. Bi ekintza mota ezberdin aipatu genitzake hemen, hala nola, birheziketara bideratuta egongo diren heziketa programak eta bestalde birgizarteratze sozialera bideratutakoak, ekinzta soziokulturalen bitartez. Birgizarteratzeko neurriak izango dira kanpoaldearekin harremanak mantentzea bisita eta komunikabide ezberdinen bitartez.

Tratamenduaren beste helburuetako bat, barneratua askatasunean legea errespetatuz bizitzea izango litzateke. Gainera EELOk 60. artikulua dio, indibidualizazio sistema posible izan dadi, espetxe-langileek beharrezkoa dutela

barneratuak ezagutzea, ondorioz, posible izango da taldeak egokitzea eta baita tratamendua egokitzea. Prozesu guztian zehar, barneratuak zeresan handia izan beharko luke tratamenduaren inguruan.

Birgizarteratzeko eta berreziketarako azalduko oztopo hauek hausnartuta, lanaren atal praktikoa eta ikerketa lana egingo da ondoren, aipatutako ideia guztiak, arlo ezberdinetan aztertuz.

## 2. IKERKETA KRIMINOLOGIKOA

### 2.1 HELBURUA

Ikerketa kriminologikoa, aurretik azaldutako teoria guztia kontuan hartu eta espetxe inguruko agente eragile ezberdinei galdetegiak egitearen bitartez garatuko da. Horretarako beharrezkoa da aurretik azaldutako guztia hausnartzea eta galdetegi ezberdinen emaitzekin alderatzea.

Atal praktikoaren muina, kartzeletan dagoen bizikidetzari buruzko informazioa ateratzea da. Legeztatuta dauden neurriak zuzen aplikatzen diren ikertuko da, ondoren zenbait proposamen eta ideia zehazteko zenbait egoeren aurrean. Kartzelako bizikidetzak berebiziko garrantzia du presoan birgizarteratze prozesuan eta beraz, dauden egoerak hobetzea ezinbestekoa izango da, berrerortze tasa murriztu dadin.

Egun, berrerortze tasa murrizteko egiten diren ahaleginak nabariak dira, baina errealitate bat da, kartzelan daudenen berrerorketa tasa existitzen dela eta beti existituko dela. Kartzela-zigorren helburuetako bat, lanean hainbatetan aipatu dugun bezala, sartzan den pertsona birgizarteratzea da, askatasunean legearen errespetuan bizitzeko. Gizarteraen babeserako ere ezinbestekoa izango da kartzelaren erabilera, baina kartzela prozesua zuzena izatea ezinbestekoa izango da.

Kartzelako bizikidetzari buruzko ateratako informazioa lanean zehar ez da oso positiboa izan, baina teoriatik praktikara beti izaten aldea. Lan honen bitartez, alde hori zenbatekoa zen ikusiko dugu.

Aztertu nahi diren atalak ondorengoak izango dira:

1. Kartzelan gatazkak ematen diren edo ez.
2. Kartzeletan birgizarteratzea oztopatzen duten egoerak dauden edo ez.
3. Kartzelako barneratu eta agenteak espetxe barruan ematen diren egoeren aurrean prestatuak dauden edo ez.
4. Kartzela-zigorrek birgizarteratzeko balio duen edo ez.

## 5. Hot-spots mapak erabilgarriak diren edo ez espetxeetan.

Helburu horiek kontuan hartzen baditugu, kartzela eraginkorra den edo ez ondorioztatu genezake hein handi batean. Gatazkek, beti birgizarteratzea oztopatuko dute, hala nola, liskarrak ematen baldin badira, autolesioak dauden edo ez, espetxe-langile eta barneratuen arteko harremana errespetuzkoa den edo ez ikustea...

Birgizarteratzea oztopatzen duten praktika bat esaterako droga kontsumoa izan daiteke. Baita, indibidualizazio printzipioaren aurkako programak aplikatzea, kartzelako talde multidisziplinarrarekin harreman ezegokia izatea, eta abar.

Espetxeratuen baldintzak ezberdinak izatea, diskriminazio zantzu bat izan daiteke. Honek, espetxeratuen artean liskarrak sor ditzake, lortu nahi diren helburu pertsonaletara heltzeko bide ez-zilegiak erabiltzeko aukerak areagotuko baitira.

Kartzelan gertatu zaitezkeen gatazka edo beste zenbait egoera bortitz zein liskartsuren aurreran espetxe-langileak prest egotea oso garrantzitsua izango da. Barneratuaren oinarritzko eskubideak errespetatu beharko dituzte eta behintzat, presoekin harreman zuzena izan behar dute.

Azterketa kriminologiko honen bitartez, kriminologoek kartzeletan beren lekua dutela demostratu nahi da, errealitate hau ikertzeko gai garelako demostratuz. Etorkizun batean, espetxe-langile izateko aukerak egun ez dira etorkizun urrunekoak, eta lan honen bitartez azaldu nahi da, gure tokia ere kartzelan badagoela.

## 2.2 ZAILTASUNAK

Atal praktikoa lantzerako garaian, hainbat limitazio aurkitu dira elkarrizketak garatzeko, COVID-19 birusaren presentzia delako. Alde batetik, pertsona ezberdinekin harremantzeko egun limitazio handiak agertzen direlako kutsaketagatik, eta bestalde, landu nahi den arloan bertan, muga handiak daudelako.

Kartzelak berez, bisitak jasotzeko oso limitatuak daude eta beraz zailtasunak nabariak izan dira, elkarrizketa edo ikerlanerako ekintzak aurrera eramateko momentuan.

Gainera, ez da erraza egun inguruan kartzelan egon den norbaitekin topo egitea. Hasteko, ez delako beharrezkoa pertsona batek hori kontatzea, eta bestalde, egun oso esteriotipatua dagoen talde bat delako. Beraz askotan, galdetzen bada ere, erantzuten ez den zerbait da.

Elkarrizketarako deitu ziren 5 pertsonetatik, bik kale egin dute eta beraz, espetxean egon diren hiru pertsonekin landu dira galdetegiak.

Kartzeletan baimen berezirik gabe ez dago sartzeko aukerarik segurtasun handiko instituzioak direlako. Ulegarria da neurri horiek hartzea kartzeletan, hain zuzen ere, espetxeratuen eta bisitariaren babeserako. Beraz azterketa kriminologikoa lortu diren emaitzetan ondorioztatuak izango dira.

Espetxeko langileen arloan, Martutenen bertan praktketan izandako emakume batek galdetegi bat betetzea onartu du, baina zaila izan da berarekin topo egitea, ordutegi kontuagatik. Kasu honetan erizain bati egindako elkarrizketa azalduko da lanean.

## 2.3 LAGINA

Espetxeak dituzten agente eragile ezberdinak aukeratu dira:

1. Espetxean egon diren hiru pertsona.
2. Espetxean erizain bezala praktiketan egondako pertsona bat.
3. Espetxe arloan lan egiten duen psikologoa.

## 2.4 METODOLOGIA

### 2.4.1 ESPETXE-ZIGORRA JASAN DUTENEI GALDETEGIAK (1. Eranskina)

Espetxeratuei metodologia kualitatiboa aplikatuko zaie. Aurrez aurreko elkarrizketak semiestrukturatuak izango dira, elkarrizketatuak zerbait gehiago landu nahi badu, aukera izan dezan. Idatzizko galdetegia osatu duten pertsonak osteria elkarrizketa itxia izango dute, eta galderen erantzuna soilik izango da kontuan hartuko dena.

Espetxeratuen bizikidetzari buruzko informazio errealena eman ditzaketen pertsonak kartzelan daudenak edo kartzelatik jada pasatu direnak direla uler genezake. Horretarako, kartzelan delitu ezberdinen ondorioz egon diren pertsonen galdetegi batzuk pasa dizkiegu.

Galdetegi horien bitartez, kartzelan egon daitezkeen bizikidetzari buruzko informazioa atera nahi izan da, gatazka ezberdinei buruz galdetuz. Hasteko beren aurkezpen labur bat eskatu zaie espetxean egon diren pertsona hauei, eta ondoren beren ikuspegitik kartzelan izan duten esperientziari buruzko galderak azaldu zaizkie.

Mota ezberdinetako galderak aurkeztu dira, hala nola, ea beraien bizitzan birgizarteratzeko balio izan dien, barneratuen artean gatazkak dauden, barneratu eta espetxe-langileen artean gatazkak dauden, autolesio kasuak ikusi dituzten edo ez, espetxeetako zein toki diren gatazkatsuenak, eta abar luze bat.

Galdetegi hauek oso sinpleak dira, erraztasunez erantzuteko. Baina ondoren, zuzeneko elkarrizketa semi-estrukturatu bi egin dira lana sakontzeko asmoz. Elkarrizketa honetan, jada norberaren esperientzia pertsonaletik kontatutako informazioa lortu eta aztertu da.

Espetxeratuetako 3 pertsona hauetatik, bi pertsonak aurrez aurreko elkarrizketa onartu dute, galdetegian zeuden galderak oso urriak zirelako beren iritziz. Galdetegiak beren arreta piztu du eta elkarrizketa beraiek eskatu dute pertsonalki, beren esperientzia eta ikuspuntua elkarbanatu nahi izan dutelako.

#### 2.4.2 ESPETXEETAKO PSIKOLOGOARI GALDETEGIA (5. Eranskina)

Espetxeetako psikologoari egingo zaion galdetegia itxia izango da eta lau galdera nagusi izango ditu birgizarteratzeari eta espetxeko bizikidetzari buruz. Erantzunak, galderaren arabekoak izango dira eta hori izango da kontuan hartuko dena.

Espetxeeko psikologoek espetxeratuen tratamenduen zuzeneko aplikazioan egiten dute lana. Beharrezkoa da langile hauen iritzia jasotzea lanean, hain zuzen ere, espetxeratuekin zuzeneko lotura izateaz gain, beren egoera psikologikoari buruzko zantzuak aztertzen dituelako.

Espetxeko psikologoari egin zaizkion galderak kartzela-zigorren beharrezkotasunari buruz, bertako bizikidetzari buruzko informazioari buruz, eta kriminologo batek kartzelan izan dezakeen eraginari buruzkoak izan dira.

Kartzelako bizikidetzaren harira egindako galderan, birgizarteratzerako behar-beharrezkoa den antolamendua errealia den edo ez planteatu da. Bizikidetzak baketsu bat, ezinbestekoa delako preso dagoen delitugileari askatasunean bizitzera irakasteko. Espetxeek ezin dute bizikidetzan gabezi handirik izan, ez delako lortu nahi den birgizarteratzeko helburua lortuko.

Galdetegi honetatik atera nahi diren ondorioak, birgizarteratze helburua betetzen den edo ez jakitea da. Egun, lege ezberdinen aplikazioarekin eta dituzten prozedura ezberdinekin, teoriarik birgizarteratze prozesua posible delako hainbat profesionalen hitzetan. Praktikan aztertu beharreko zerbait da azken hau.

Kriminologoak espetxean bere tokia duen edo ez galdetzearen arrazoia, hasteko, talde multidisziplinari bateko partaide delako galdetu zaio. Talde horretan egon beharko litzateke kriminologoak beren ezagutzak eta praktikak lantzen, eta horregatik planteatu da galdera hori.

#### 2.4.3 ESPETXEAN ERIZAINZAK PRAKTIKAK EGINDUENARI GALDETEGIA (6. Eranskina)

Espetxean praktikan egondako erizainari aurrez aurreko elkarrizketa egin zaio. Kasu honetan, elkarrizketa semiestrukturatu izango da, elkarrizketan zehar galderetatik aparte ideia berriren bat edo esperientziaren bat kontatu nahi badu, aukera izan dezan.

Interesgarria da erizainak espetxe batean izan dezakeen ikuspuntua, hain zuzen ere, espetxeetan eman daitezkeen gatazka batzuen isla berak pertsonalki ikusten duelako. Erizainak, espetxeetan medikazioak eman, zauriak sendatu eta disgnosi ezberdinak lantzen ditu.

Kasu honetan, erizainari egingo zaizkion galderak, autolesioei buruzkoak izango dira batik bat. Liskar bortitzen ondorioz egon daitezkeen lesioak badaude, edo autolesioak sarri ikusten baditu.



Espetxeratu batzuek eguneroko medikazioa dute, eta erizainari galdetuko zaio, trastorno ezberdinak ikusi dituen kartzela barruan, espetxe edo psikiatrikoetan egon behar duten ondorioztatzeko.

#### 2.4.4 ESPETXEETAKO JURISTA TEKNIKARI GORENARI GALDETEGIA (7. Eranskina)

Oso garrantzitsua izango da galdetegi honetatik atera genezaken informazioa, hain zuzen ere, birgizarteratze programekin zuzeneko harremana duen espetxe-langilea delako. Galdetegi itxi bat da, galdera gutxi batzuekin, oso lanpetuta dauden pertsonak direlako beren egunerokotasunean.

Espetxeetako jurista teknikari gorenak, barneratuen espetxe-informazio penal eta prozesalak aztertzen ditu ondoren balorazio kriminologiko bat egiten du espetxeratua modulu ezberdinetan sailkatzeko. Gainera, Talde teknikariarekin zuzeneko harremanetan dago, proposamen kriminologikoak egiteko. Pertsona honek espetxe-tratamendu indibidualizatu bat proposatzen du eta praktikan parte hartze hartzen.

Espetxe-langile honek, barneratuari bere txostenari buruzko informazio penala eta prozesala azaldu behar dizkio momentu oro, eta birgizarteratze programetan duten garapena kontuan hartuz, baimen ezberdinen balorazioa egiten du.

Espetxeetako jurista teknikari gorenari planteatutako galdetegia, kartzelaren birgizarteratze helburuarekin eta espetxeetako bizikidetzarekin zuzeneko harremana dute.

#### 2.4.3 ESPETXEETAKO HEZITZAILEARI GALDETEGIA (8. Eranskina)

Espetxeetako hezitzaileari egindako galdetegia aurrekoaren berdina da. Galdera itxiak dira, eta idatziz erantzun dute, posta elektronikoz hain zuzen ere. Interesgarria da hezitzailearen iritzia ezagutzea, hain zuzen ere barneratuak gehien ezagutzen dituen espetxe-langilea dela esan genezakeelako.

Zubi bezala egiten du lan espetxeko hezitzaileak, barneratu eta espetxe-instituzioaren artean. Barneratuak eskakizunak zuzenean hezitzaileari egiten dizkio eta ondoren espetxe establezimendura transmititzen ditu. Gainera, barneratu guztiak ikuskatzen ditu eta beren hobekuntzak aztertzen ditu birgizarteratze prozesuarekin harremanetan.

## 2.5. EMAITZAK

### ***Espetxeetan egon diren presoak:***

Jasotako emaitzak ez dira guztiz positiboak izan kartzelaratutako pertsonen emandako erantzunak kontuan izanik. Espetxe-sistemarekiko jarrera ezkor bat dute generalean baina adin ezberdintasuna nabaria da erantzunetan. Elkarrizketatutako bi espetxeratu aita eta semea dira.

#### **Espetxeratua 1: (2. Eranskina)**

Espetxeratu honek 53 urte ditu, eta 16 hilabetez egon da Martuteneko espetxean.

Zuzeneko elkarrizketa onartu duen pertsona bat da. Egun kamiolaria da, eta kartzelan sartu baino lehen baita kamiolaria zen enpresa berdinean jarraitzen du. Bere hitzetan lan eremuan ez du arazorik izan, enpresan beharrezko zutelako. Alderdi oso positibo bat da hau, hain zuzen ere, kartzelaratzearen ondorioz kaleraketak ohikoak izaten direla uste delako aurretik azaldutako teorietan oinarrituta.

Lehenengo elkarrizketatutako espetxeratua genero indarkeriagatik zuen urruntze-agindu bat urratzeagatik egon da kartzelan 16 hilabetez. Kondena osorik bete du, nahiz eta bere jarrera, bere hitzetan, zuzena izan den, eta konfidantzazko preso bihurtzera heldu den.

Bere bizitzan pertsonalki nolako eragina izan duen galdetzean, oso negatiboki eragin diola azaldu du, bere harreman interpersonal familiar askok porrot egin dutela adieraziz. Gainera, espetxean sartzea berarentzako oso gogorra izan zela azaldu zuen, ez baitzen batere erraza kartzelako bizikidetzara egokitzea.

Bere hitzetan, espetxean sartzean ez diote inolako gizarteratze prozesurik erakusten eta nork bere bizitza landu behar duela azaltzen du. Martuteneko espetxean egon da espetxeratuta eta Erreterian bizi da gaur egun. Presondegian hainbat espetxeratu ezagutzeak asko lagundu ziola azaltzen du. Integratzeko momentuan, kartzelan sartu zenean jada taldeak antolatuak zeudela dio, eta inor ezagutu ezean, talde bateko kide izatea oso zaila dela azpimarratzen du.

Preso egondako pertsona hau, espetxea garbitzen hasi zen eta ekonomatoan lan egiten bukatu zuen. Preso ezberdinek, lan eta programa ezberdinetan parte hartzen zutela dio. Baina, baldintza ezberdintasunagatik espetxeratuen artean enbidia kasuak handiak zirela azaltzen du.

Espetxean gatazkak daudela argi esan du, bai espetxeratuen artean eta baita espetxe-langileekin. Espetxeratuen artean dauden liskarrak komunitan eta ziegetan ematen direla dio. Azken honek, arazoak izan ditu bere gela berdinean egon diren pertsonekin eta lau bider aldatu diote gelaz, azkeneko gelan bakarrik bizitzera bukatu arte.

Espetxe-langileekin zegoen gatazkaren arrazoi nagusia horrela izendatzen du: *“Si les hacías trabajar más de la cuenta, no te trataban nada bien...”*. Honekin esan nahi duena da, kartzela toki ezberdinetan liskarrak sortzen dituen espetxeratu bat baldin badago, zigorrak eta jipoiak jasoko dituela.

Espetxe-langileak egoeren aurrean prest zeudela zioen. Liskar baten aurrean jipoiak ematen zirela dio, baina horrekin normalean espetxeratuak berriz ez zuen gatazkarik sortzen. Indarkeria oso barneratuta dagoela dio espetxeetan.

Liskarrak, bere ziegan droga kontsumo nabariagatik ziren. Bere hitzetan, ez zegoen ados bere gelan substantzien kontsumoarekin eta bertatik alde egin nahi zuen. Gelako bizikidetzak oso eskasa zela zioen, elkarrekiko errespeturik ez zegoelako.

Droga-trafikoa aipatzen du asko, edozein motatako drogak lortzeko aukera dagoela dio kartzela barruan. Ekonomatoan lan egiten zuenean hura ikusten zuen, hain zuzen ere, saltzen zituen produktuekin trukeak egiten zirelako kartzelan. Droga sarbidea bisiten bitartez sartzen dela errealitate bat dela mahaigaineratu du elkarrizketa guztian zehar.

Laguntza-presu bezala egon da bere azkeneko zeldan. Bakarrik zegoenean, gazte bat ekarri zioten berarekin bizitzeko eta azken hau zaintzeko. Gazte hark, notizi txar bat jasotzean, autolesiorako joera handia zuen, eta ezin zitzaion bakarrik utzi.

Espetxean autolesioak nabariak zirela azpimarratzen du, eta eskura dagoen edozein objekturen erabileraren bitartez eragiten ziren, hala nola, atun lataren tapak erabili, hormaren aurka kolpeak joaz, kamisetaren tela erabiltzen da ebakiak egiteko, etab.

Kasu honetan genero indarkeriagatik egon da kartzelan pertsona hau. Amorru handiz azaltzen du nola, birgizarteratzeko programa ezegoki batean sartu nahi zutela. Droga-kontsumoarekin arazoa konpontzeko programa bat eskaini zioten eta ez zuen onartu ondorengoa esanez:

*“Si yo aquí estoy por un caso de violencia de género, que me hagan un cursillo sobre ello para que aprenda a no cometer el mismo error. Me negaba a estar en un programa antidrogas cuando yo nunca he tenido ningún problema de consumo”.*

Azkenean, espetxe zaintzarako epailearekin hainbat elkarrizketa izan ondoren, genero indarkeriaren aurkako ikastaro batean sartu zuten eta oso pozik kontatzen zuen bere esperientzia bertan.

Espetxeran egondako pertsona honek ondorengoa dio elkarrizketa bukatzean: *“La cárcel es ineficiente y ami no me ha servido de nada”*. Ez du uste bere bizitzan eragin positiborik eduki duenik kartzelan egon denaldiak. Bere bizitzako denbora galarazi diola dio, eta ez diola birgizarteratu, gizartean jada integratuta zegoelako.

Laburbilduz, bere esperientziatik gauza positiboak eta negatiboak aipatzen ditu, hala nola, lagun asko ezagutu dituela kartzelan eta kartzelan egongo ez balitz beraiekin topo egitea ezinezkoa izango zela dio. Atal negatiboari begira, integratzeko zailtasunak eta programa indibidualizatu batean parte hartzeko ezintasuna azaldu du.

### **Espetxeratua 2: (3. Eranskina)**

Espetxean izandako bigarren pertsona honek idatzizko galdetegia egin zuen, aurrez aurreko elkarrizketa egiteko ezintasunagatik. 27 urteko gazte bat da, Erreterian bizi dena. Gasteizko kartzelan espetxeratuta egon da.

Hainbatetariko delituen ondorioz aplikatu diote espetxe-zigorra. Preso honek ondorengo delituak izendatzen ditu: agresioak, ebazketa, lapurreta, lapurreta indarkeriarekin, iruzurra, droga-trafikoaren aurkako atxikitzea.

Galdetegian bere bizitzan kartzela zigorrak asko lagundu diola dio, eta birgizarteratze programetan sartzeko aukera eduki du. Ikus genezake beraz, bere aitarekiko ikuspuntu ezberdina duela.

Kartzelan gatazkak daudela argi ikusten da galdetegia. Gatazkak presoan artean eta bai espetxe langileen artean daudela dio, baina galdera honen aurrean baieztatu eta ezezko erantzunak borobildu ditu. Esan genezake beraz barneratu batzuekin harreman ona izan duela eta beste batzuekin liskarrak izan dituela. Autolesioak ere daudela dio espetxe barruan.

Toki gatazkatsuenak komunak dira bere ustez. Komunitatean ez dago kamararik eta beraz presoan arteko arazoak bertan konpontzen dituzte, normalean jipoien bitartez, baina trafiko kasuak ere komunitatean ematen direla dio.

Espetxe-langileak gerta litezkeen gatazken aurrean prest dauden edo ez galdetu da galdetegian, eta ezezkoa erantzun du. Eta azkenik kartzelako bizikidetzan hobetu daitekeela esan du azkeneko galderan.

### **Espetxeratua 3: (4. Eranskina)**

Espetxean egondako hirugarren pertsona honek 41 urte ditu eta Gernikan bizi da gaur egun. Espetxean 5 hilabetez egon zen droga-trafikoaren ondorioz. Zuzeneko elkarrizketa onartu du, eta bere esperientzia kontatu digu, pausoz pauso.

Bere hitzetan, kartzelaratzearen notizia jaso zuenean, zekulako tristura jasan zuen berarekin bat berarekin ere droga trafikoan zebilen pertsona bat baita atxilotu zutelako. Bere hitzetan, min gehiago egin zion bere ondoko pertsona horrek prozesu guzti hura pasa behar izatea, berak pertsonalki pasatzea baino.

Bere ingurugiro sozialean, kalean, ez zuen inolako eragin negatiborik izan, hain zuzen ere, oso integratua zegoelako gizartean eta aipatzen du *“todos sabían lo que hacía”*. Beraz, ez zuela inolako erreperkusiorik jasan bere lagun arteko ingurune hurbilenetan. Familian bere kartzelaratzek inpaktu zuzena eta bortitza izan zuela azpimarratzen du. Bere amaren tristura egin zitzaion gogorrena. Familian horrelako notizi bat jasotzea, ez dela egoerra erraza dio.

Espetxean beste barneratuekin harreman oso ona izan zuen, eta ezagunak zituen Basauriko presondegian. Kartzelan gentea ezagutzeak egoera asko errazten dituela aipatzen du. Espetxe-langileekin harreman ona izan zuen hain zuzen ere. Baina barneratuen artean, eta barneratuak espetxe-langileekin liskarrak zituztela onartzen du.

Barneratuen arteko gatazken arrazoi nagusia, *“es porque hay mucho gallito de pelea”* dio. Esta bestalde *“por el tema de la droga”* dela dio. Beraz, espetxean bertan ere droga trafikoaren presentzia dagoela uler genezake diotenaren arabera. Toki gatazkatxuen patioa dela dio, eta ondoren liskarrak *“txabolo”* deituriko toki batzuetan direla esaten du.

Azken honek ez zuen birgizarteratzeko programetan parte hartu. Bere hitzetan horrelakorik ez zuela behar azpimarratzen du, hain zuzen ere pertsonen egunerokotasun normalean barneratuta zegoelako. Bere kasua berezia dela dio, droga-trafikoarena, bazekielako zer egiten ari zen eta zer nolako arriskuak barnebiltzen zituen. Ondorengo esaldia erabiltzen du *“Yo sabía que no vendía gominolas por la calle y que en cualquier momento podía saltar la liebre y saltó”*.

Bere karrera kriminala bukatu zen edo ez galdetzean, espetxetik pasa osetan zekizkienak baino gauza gehiago ikasi zituela dio, bere karrera kriminalarekin jarraitzeko. Kutsaketa efektu argi bat ematen da zenbait kasutan bere hitzetan. Kartzelan zegoen beste preso batzuekin bere teknikak partekatu zituen, eta beste espetxeratu batzuek ere hala egin zuten, delitugintzan hobetzeko eta harrapatuak ez izateko.

Espetxean izandako esperientziari buruz hausnarketa bat egin duenean, bere inguru hurbilenean sortutako inpaktua azpimarratzen du, bere amari eragindako kalte emozionala eta berarekin batera espetxeratu zuten kidea.

### ***Espetxeetako psikologoari galdetegia (5. Eranskina)***

Espetxe langileei planteatutako lehenengo galderan ondorengo afirmazioa zegoen: “Delitugile batzuentzako beharrezkoa da espetxe-zigorra”. Esaldi honekin duen adostasunaren inguruan, psikologa honek, dio, espetxe-zigorra beharrezkoa dela, birgizarteratze prozesua eraginkorra baldin bada, ostera ez duela ezertarako balio espetxe-zigorra aplikatzea.

Bere egunerokotasunean, askatasunean bizitzeko zailtasunak dituzten presoekin aurkitzen direla dio, eta horretarako beharrezkoa dela talde multidisziplinari baten esku-hartzea. Bere hitzetan, beharrezkoa da kondenak urte kopuru zehar bat izateko, pertsonaren narradura pertsonala eman ez dadin.

Espetxeek beren birgizarteratze helburua lortzeko egunero lan egiten dutela dio, eta konstituzioaren noranzkoek espetxe-zigorraren nondik norakoak finkatzen dituela baieztatzen du. Bere hitzetan baliabide falta itzela da eta psikologo bakoitzeko 150-200 espetxeratu daudela dio. Birgizarteratzearen bide malkarraren adibide dela dio egoera hau.

Espetxeetan ematen den bizikidetzaren preso baten hitzetatik beste batera asko aldatzen dela dio, baina azken urteetan egoera asko aldatu dela azpimarratzen du. Bere hitzetan

*“...La adecuada separación interior, la implantación de módulos de respeto, de módulos terapéuticos, la entrada de entidades del tercer sector para intervenir con la población penitenciaria...ha permitido crear ambientes lo suficientemente profilácticos como para favorecer una adecuada convivencia e intervención.”*

Egun espetxeetan erabiltzen diren baliabideak sendoagoak dira, eta eragin positiboa izan du barneratuen arteko elkarbizitzan.

Kriminologoak kartzelan eragin positibo bat izango zutela azpimarratzen du, birgizarteratze programa eraldatzeko eta emaitza eraginkorragoak izateko, komeni litzatekeela kriminologoaren eskutik ikerketak egitea.

## ***Espetxean erizain bezala praktikak egin dituen elkarrizketatua (6. Eranskina)***

Martuteneko espetxean, erizaintzarako praktikak egiten egon den pertsona bat da. Esperientzia oso baliogarria izan dela dio momentu oro, eta gizarteko pertsona ahulekin egin duela topo dio.

Birgizarteratzeari buruz dio, ez dela prozesu egoki bat ematen eta delitugintzara berriz bueltatzen ez dena ez dela berreziketa bat izan duelako, zigorraren beldurragatik bukatzen duelako bere karrera kriminala.

Bere hitzetan, osasun mentalarekin harremana duten instituzioek lotura estuago eduki beharko lukete espetxeekin. Delitugintzan diharduten askok laguntza psikologikoa behar dutela azaltzen du. Elkarrizketatu honen kasuan, espetxeratuei medikazio asko ematen zaie, hauek lasaitzeko helburuarekin, liskarrak ekiditeko. Bere hitzetan hau ez da arazoari soluzio bat ematea. Ondorengoa dio *“yo no creo mucho en el sistema penitenciario actual...”*.

Erizainek ematen duten medikazioa gehienetan medikazio psikiatrikoa dela azaltzen du eta diagnostiko maila handia dagoela trastorno ezberdinen inguruan, droga-mendekotasunaren ondorioz garatzen diren trastornoak, eskizofrenia asko, Inpultsoen kontrolen trastornoak, eta abar.

Espetxeetan dauden programen eta praktikak errealitatean aurkituko dutenarekin ez datozela bat dio. Bere hitzetan, kartzelako praktikek ez dute espetxeratua askatasunean bizitzera berrezten. Dauden terapiak okupazionalak direla dio, presoak espetxean emango duen denbora zerbait egiten pasa dezan.

Barneratuen artean ez dagoela gatazkarik dio, hain zuzen ere Martutenen dauden pertsonen delituak ez direlako bereziki larriak edo beren kondenaren azkeneko zatia pasatzen dutelako bertan. Gainera dio, gatazkak sortzen badira, balitekeela zenbait pertsonen kondenan honek eragina izatea.

Azpimarratzen duen beste gakoetariko bat, autolesioen zera da. Erizain bezala, egunero espetxeratuek bere buruaren aurka egiten dituzten zauriak sendatzen zituen eta esperientzia latza dela azaltzen du. Normalean ikusten dituen lesioak ebakiak direla dio.

Autolesioen arrazoi nagusia dio, emozioen kontrol eza dela, ez dutela aukerarik beren inpultsoak kontrolatzekoe eta baretzeko modua beraien burua



autolesionatzea dela. Esaten du baita, esperientzia pertsonalak kontuan hartuta eta barneratuekin izan zituen hizketaldien arabera, espetxealdiaren lehenengo etapan gertatzen zela batik bat.

Barneratuekin izan zuen harremanari buruz hitz egin du elkarrizketatuak. Hemen, askatasunean dauden gizartearen egoera antzekoa dela dio. Baztuekin harreman pertsonalago bat izan zuela beste batzuekin baino. Baina Martutenen delitugileetako asko genero indarkeriagatik preso daudela azaldu du. Emakume bezala harremantzeko zailtasunak izan ditu askotan, ustez, aurretiaz azalduetako delitugile motaren ondorioz.

### ***Espetxeetako jurista teknikari gorenari egindako galdetegia (7.Eranskina)***

Espetxeetako jurista teknikari gorenari espetxe-zigorra delitugile batzuentzako beharrezkoa iruditzen zaio, delituaren larritasunaren arabera, gizartearen babeserako, kaltetutako ondasunen arabera, eta abar. Kontuan hartzen dela baita bere pertsonalitatea eta bizitzan zehar izandako esperientziak. Horrela definitzen du espetxearen beharrezkotasuna jurista honek: *“no existe otra alternativa válida, ya sea a nivel personal del propio delincuente, ya sea como defensa social.”*

Espetxeek birgizarteratzeko duten helburua neurri handi batean betetzen dutela dio, eta horren isla dela berrerortze tasaren urritasuna. Bere hitzetan, etorkizun ertain eta luzera ez dagoela berrerorle askorik.

Espetxeak beren bizitza modu positibo batean bideratu dezakeela dio, bertan dauden espetxe-langileak guztiz profesionalak direlako. Profesional edo espetxe-langile hauek delitugilearen egoera bideratzeko gaituak daudela baieztatzen du.

Espetxe-langile honek dioena zentzu honetan oso interesgarria iruditzen dait, hain zuzen ere, espetxe sistemak beste kanpo eragile batzuekin izan behar duen harremana beharrezkotasuna esaten du.

*“Otra cosa es que el interno viene de la calle, de la sociedad con una serie de problemas, y la cárcel por sí misma, sin la colaboración de esa misma sociedad no puede ser la solución en sí misma de forma autónoma o independiente.”*

Espetxeetan dagoen bizikidetzari buruz guztiz ziur esaten du egokia dela. Espainia guztian egun, presondegiak toki seguruak direla dio, eta gehienetan baketsuak. Horrek ez du esan nahi, modulu guztiak berdinak direla. Badira modulu batzuk beste batzuk baino gatazkatsuagoak direnak.

Presondegietan birgizarteratzea lortzeko saiakera handiak egiten direla dio, hala nola, bizikidetzaren baketsu, antolatu eta positibo bat bilatzen dira.

Espetxeetan kriminologoak beharrezkoak direla uste du, eta hain zuzen ere bere lanpostua jurista kriminologo bezala izendatzen zelako lehen. Kriminologoak psikologoarekin eta soziologoarekin lan egin behar duela dio, eta zeharo onuragarria izango litzatekeela espetxeen hobekuntzarako.

### ***Espetxeetako hezitzaileari galdetegia (8. Eranskina)***

Aurrekoak izan duen galdetegi berdina izan da, 4 galdera itxi. Kasu honetan jasotako erantzunak oso laburrak izan dira. Hala nola, espetxea beharrezkoa dela esan du kasu batzuetan, birgizarteratze prozesua ez dela guztiz eraginkorra, bizikidetzari buruzko informazio positibo eta negatiboa dituela, eta kriminolgoa osagarri interesgarria litzatekeela gainontzeko profesionalen lana betetzeko.

## **2.6 ONDORIOAK**

Kriminologia zientzia interdisziplinari bat den heinean, hainbat arlotan garatzen ditu bere ikerketa lanak. Kasu kasu, lan honen helburua, espetxe-zigorren kalte eta onurak aztertzea izan da. Aurrezaintzak kale egin duenean askatasunezko gizarteetan, espetxe-zigorra apikatzen da zenbait kalteren aurrean, delituen aurrean hain zuzen ere.

Bizikidetzarekin bat, harreman interpersonalki datoz, eta hortik eratorri daitezke gatazkak. Egundak, gizarteko eremu guztietan ematen dira bizikidetzaren ondorioz gatazkak. Baina lan guztian azaldu dugun bezalako, askatasunezko bizikidetzan legerari errespetatuz bizi ezin duten pertsona batzuk, espetxe-zigorren ondorioz, gizartetik atera eta beste gizarte mugatu batean sartzen dituzte. Gizarte mugatu hauek dira hain zuzen ere espetxeak.

Gizarte guztietan beti, bizikidetza egoki bat emateko saiakerak egin dira. Kasu honetan, saiakera eta praktika horien islada da espetxe-zigorra. Bizikidetza egokia, esan genezake gatazkarik gabeko eremu bat litzatekeela, behintzat, ondasunak kaltetzen dituzten gaztaka gabekoa behintzat.

Ordena hori mantentzeko lege idatziak aplikatu izan dira gizarte ezberdinetan. Lege horiek urratzearen ondorioz, zuzenbide penalak zenbait zigor ezberdin ezartzen ditu eta zigor horien artean espetxe-zigorra dugu, gogorrena dena. Espetxe-zigorak pertsonaren eskubideak anitz mugatzen ditu, askatasunean bizitzeko eskubidea izanik murriztuen gelditzen den eskubidea zigor honen aplikazioaren ondorioz.

Norberaren garapen pertsonalak, bizitzan zehar helburu batzuk ditu. Helburu horietara heltzeko pertsonak izango dituen baliabide, aukera eta gaitasunak ezberdinak izango dira faktore ezberdinen arabera. Hemen, faktore psikologiko, sozial eta pertsonalek eragina izango dute.

Helburu pertsonalak lortzeko erabiltzen diren bideak eta baliabideak legekontrakoak direnean aplikatuko dira tankera ezberdinetako zigorrak aplikatzen dira. Kasu larrienean, espetxe-zigorra aplikatzen da. Ideia da, urteetan zehar, delitugileak gizartean berriz legearen errespetuan bizitzeko gaitasuna daukala ikusi izan dela da.

Espetxe-instituzioek beren legeak eta antolamendua dute. Hasteko, geografikoki mugatuta dauden eraikinak dira eta beras, askatasun eskubidea guztiz mugatzen dute. Espetxe-zigorra aplikatzen zaien pertsonak, bertan sartzen dira, birgizarteratzeko asmoz, askatasunean eta legeen errespetuan bizitzera prestatzeko alegia.

Presondegiak, gizartetik at dauden gizarte batzuk direla esan genezake. Beraz, ingurugiro sozial guztietan bezala, bizikidetza bat mantentzeko saiakerak egiten dira.

Espetxeek ezin dute kartzelaratzen diren pertsona hauen esperantza zapuztu, hain zuzen ere, aurretik lanean aipatu bezala, askatasunean bizitzeko motibazioa indartu behar zaielako. Motibazio horren bitartez, kartzelaratuak bere bizitzan helburu ezberdinak finkatuko ditu eta ondorioz, birgizarteratze prozesua baliogarria izango da ustez.

Espetxeratuen birgizarteratzeko motibazioa ez urratzeko, beharrezkoa izango da kondena ezberdinek gehienez urte kopuru bat izatea. Presoak, bere askatasunerako epea ezagutzen badu, balitekeelako eguna iritsi baino lehen bere bizitzan eta karrera kriminalean batez ere, aldaketak egin nahi izatea.

Ikerketa kriminologikoan atera diren emaitzak aztertzen baditugu, gure aztergaietatik ondorengo ondorioztatu genezake:

1. Espetxeetan gatazkak ematen dira, bai barneratuen artean eta baita espetxe-langile eta barneratuen artean.
2. Espetxean birgizarteratzea oztopatzen dute baliabide urritasunak, eta gatazken presentziak. Gainera, droga-trafikoaren presentzia erreala da, eta elkarriketatuak bat datoz baita, laguntza psikologikoa urria dela. Barneratu batzuk ez daude espetxeetan egoteko prestatuak, eta horrek birgizarteratze prozesua zeharo oztopatzen du.
3. Espetxe-zigorrek zenbait kasutan beharrezkoak dira, hain zuzen ere, birgizarteratze programen aurrean erantzun positibo bat dagoelako. Esaterako, lehenengo elkarriketatuak bere beharretara egokitutako programa batean parte-hartu zuenean, prozesua eraginkorra zela esan zuen.
4. Aurrekoarekin lotuta beraz, kartzela-zigorrek zenbaitetan birgizarteratzeko balio du.
5. Espetxeetako toki gatazkatsuenak zeintzuk diren aztertzean, komunak, logelak eta patioa azpimarratu dituzte espetxean egondako pertsonak, eta beraz, posible litzateke hot-spots mapa bat aplikatzea.

Espetxeetan dauden gatazka askok, droga-kontsumoarekin harreman duta daude. Espetxeratuen hitzetan, bisitetan sartzen dira drogak normalean. Egia da, bisitak oso babestuak egon behar direla eta beharrezkoa dela kartzelaratuaren eta bisitariaren intimitatea zaintzea.

Oso zaila litzateke kasu hauetan beraz, droga sarbidea oztopatzea. Espetxeratuari miaketa bat egitea aukera bat litzateke, baina bisita bakoitzaren ostean miaketa bat posible izateko, zantzu argiak egon behar dira eta maiz, ez dago ikerketa hauek egiteko baliabide nahikoa.

Kriminologoak kasu hauetan oso baliogarriak liratezke, hain zuzen ere, ikerketa lanak egiteko prestakuntza lantzen delako kriminologia arloan.

